



LG KG220

**Telefonoaren
erabilera-gida.**





KG220 ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA - EUSKARA



Zer egin gailu elektriko eta elektroniko zaharrekín

1. Ezabatutako zaborrontziaren irudia duten produktuek 2002/96/EE zuzentaraua bete behar dute.
2. Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernua edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eraman behar dira.
3. Gailu erabilerazinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihestu daitezke.
4. Gailu elektriko eta elektroniko zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.



Sarrera	8	Funtzioak eta aukerak hautatzea	35
Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak	9	Deien erregistroak	36
KG220-en ezaugarriak	13	Galdutako deiak	36
Telefonoaren zatiak	13	Jasotako deiak	36
Pantailaren informazioa	16	Egindako deiak	36
Hasierako pantaila	18	Dei guztiak	37
Hastea	19	Azkenak ezabatzea	37
SIM txartela eta telefonoaren bateria jartzea	19	Deiaren gastuak	37
Bateria kargatzea	20	Deiaren iraupena	37
Kargagailua deskonektatzea	21	Deiaren kostuak	37
Telefonoa piztea eta itzaltzea	22	Doikuntzak	38
Sarbide-kodea	22	GPRS inform.	38
Murrizketa-pasahitza	23	Deiaren iraupena	38
Funtzio orokorrak	24	Datu-bolumenak	38
Deiak egitea eta amaitzea	24	Telefono-aurkibidea	39
Telefono-aurkibidea	28	Kontaktuak	39
Sarrerako deien menua	29	Berria gehitzea	39
Dei anizkoitzak edo konferentziak	30	Erabiltzaileen taldeak	40
Menuen zuhaitza	32	Markaketa bizkorra	40
		Norberaren zenbakiak	41

Nire bisita-txartela.....	41	Telefonoa blokeatzea.....	46
Agenda konfiguratzea.....	41	Deiak murriztea.....	46
Doikuntzak.....	43	Markaketa finkoa.....	47
Eguna eta ordua.....	43	Kodeak aldatzea.....	48
Eguna.....	43	Sarea.....	43
Egunaren formatua.....	43	Sarea aukeratzea.....	48
Ordua.....	43	Banda hautatzea.....	48
Orduaren formatua.....	43	GPRS.....	49
Telefonoa.....	43	Memoriaren egoera.....	49
Pantaila.....	43	Doikuntzak leheneratzea.....	49
Hizkuntza.....	44	Kamera.....	50
Deitzea.....	44	Argazkia egitea.....	50
Deiak desbideratzea.....	44	Jarraituak.....	51
Erantzuteko modua.....	45	Doikuntzak.....	52
Nire zenbakia bidaltzea.....	45	Automatikoki gordetzea.....	52
Deia zain.....	45	Albura ezabatzea.....	52
Abisuak minutu oro.....	46	Mezularitza.....	53
Automatikoki berriz deitzea.....	46	Mezu berria.....	53
Segurtasuna.....	46	SMS berria.....	53
PINa eskatzea.....	46	MMS berria.....	54



Sarrera	56	Amena mail posta	64
Zirriborroa	57	Txata	64
Irteera.....	57	Amena beti eguneratuta.....	64
Ahots-postontzia entzutea.....	58	Gogokoa	64
Informazio-mezuak	59	URLra joatea	64
Irakurtzea	59	Doikuntzak.....	65
Gaia.....	59	SIM zerbitzua	67
Txantiloak.....	59	Profilak	68
SMS	59	Aktibatzea	68
MMS	60	Pertsonalizatzea	68
Doikuntzak	60	Izendatzea	69
SMS	60	Multimedia-bilduma	70
MMS	61	Argazkiak.....	70
Ahots-postontziaren zentroa	62	Irudiak	70
Informazio-mezuak.....	63	Soinuak	70
Zerbitzu-mezuak	63	Jokoak eta aplikazioak.....	70
Amena.....	64	Nire jokoak eta beste zenbait.....	71
Amenarekin nabigatzea	64	Kontuak	71
Jokoen katalogoa.....	64	Irudiak	71
Musika-katalogoa	64	Doinuak	71

Jokoak.....	71
Gehiago.....	73
Antolatzailea.....	73
Antolatzailea.....	73
Memo.....	74
Alarma.....	74
Kalkulagailua	74
Munduko orduak	75
Unitate-bihurgailua.....	75
Grabagailua.....	76
Galderak eta erantzunak.....	77
Osagarriak.....	80
Datu teknikoak.....	81

Zorionak KG220 telefono mugikor aurrerratu eta trinkoa erosteagatik. Telefonoa komunikazio mugikor digital aurrerratuaren sareekin funtzionatzeko diseinatu da.



Eskuliburu honetan, telefonoaren erabilera eta funtzionamenduari buruzko informazio garrantzitsua dago. Irakurri arretaz informazio guztia, telefonoari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eta telefonoa ongi erabili eta kalterik ez eragiteko. Eskuliburu honetan esplizituki onartzen ez diren aldaketak edo ordezkapenak eginez gero, telefonoaren bermea bertan behera gera daiteke.

Irakurri jarraibideak arreta handiz. Arauak haustea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke.

Irrati-maitasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARi (*Specific Absorption Rate*, absortzio espezifikokoaren tasa) buruzko informazioa

KG220 modeloko telefono mugikorra irrati-uhinen eraginpean egoteari buruzko segurtasun-araudia betetzeko moduan diseinatu da. Arau horiek pertsona ororen —adina eta osasun-egoera gorabehera— segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikokoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.

- LG telefono-modelo batetik bestera SAR mailan aldea izan badaiteke ere, telefono guztiak irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion zuzentzarau garrantzitsuetara egokitzeko diseinatu dira.
- ICNIRP (*International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection*) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SAR balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- DASY4-k telefono-modelo honetarako —entzumen-erabilerarako— neurtu duen SAR baliorik handiena da 1,3 W/kg (10 g).
- EEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektriako eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SAR muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR datuei buruzko informazioa: 1,6 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1) (adibidez, AEB, Kanada, Australia eta Taiwan).

Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

Oharra: telefono-modelo honetan erabil daitezkeen bateriak, kargagailuak eta osagarriak erabili bakarrik. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan daiteke.

- Ez desmuntatu telefonoa. Konpontzeko, eraman zerbitzu tekniko gaitu batera.



- Ez utzi etxe-tresna elektrikoetatik hurbil (telebista, irratia edo ordenagailua).
- Ez utzi telefonoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez sartu sekula telefonoa mikrouhin-labe batean, bateria leher baitaiteke.
- Ez utzi telefonoari erortzen.
- Ez utzi bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Telefonoaren estaldura hondatu egin daiteke, binilozko estalkiekin edo bilgarriekin estaltzen bada.
- Zapi lehorrak erabili unitatearen kanpoko aldea garbitzeko (ez erabili bentzenorik, diluitzailerik, alkoholik edo bestelako disolbatzailerik).
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan, hondatu egin baitaiteke.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.

- Ez busti telefonoa eta ez utzi toki hezeetan.
- Osagarriak (batez ere mikrofonoak) kontuz erabili. Egiaztatu kableak babestuta daudela eta ez dutela antena alferrik ukitzen.
- Deskonektatu datu-kablea telefonoa piztu baino lehen.

Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

Gutxieneko energia-kontsumoarekin ahalik eta etekin handienaz baliatzeko:

- Ez ukitu antena telefonoa erabiltzen ari zaren bitartean. Ukitzen baduzu, deiaren kalitatea oker daiteke eta, gainera, baliteke telefonoak behar baino energia gehiago kontsumitzea eta hitz egiteko denbora eta deiak egiteko eta jasotzeko egoeraren iraupena txikitzea.

Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek interferentziak eragin diezazkiekete beste gailu elektroniko batzuei.



Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu, baimenik eskatu gabe. Taupada-markagailua baldin baduzu, ez ipini telefonoa markagailutik hurbil (adibidez, alkandorako edo txaketako poltsikoan).
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

Bide-segurtasuna

Gidatu bitartean telefono mugikorrek erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauetara kasu egin.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean hitz egiteko.
- Gidatu arreta osoz.
- Erabili esku libreko kita.
- Deiak egin edo sarrerako deiei erantzun baino lehen, errepidetik irten eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektroniko batzuetan eragin dezake (autoaren irratia edo segurtasun-ekipoak).
- Ibilgailuak airbag-a baldin badu, ez oztoporik jarri hariarik gabeko ekipo eramangarri edo ekipo instalatuekin; izan ere, lesio larriak izateko arriskua dago, airbagak gaizki funtzionatzen badu.

Musika entzutean, kontuan izan ingurukoak entzuteko moduko bolumenean izan behar duzula, adibidez, errepidea gurutzatu behar baduzu.

Kalteak entzumenean

Musika ozen entzuten baduzu luzaroan, entzumena kalte dezakezu. Horregatik, gomendatzen dizugu terminala ez piztea/itzaltzea belarritik hurbil duzunean, eta musika entzun edo telefonoz hitz egitean beti neurrizko bolumena erabiltzea.

Eraispenak

Ez erabili telefonoa lehergaiekin lanean ari diren tokietan. Errespetatu murrizketak eta jarraitu indarrean dauden arauak.



Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan; ez eta erregai eta produktu kimikoetatik gertu ere.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoiarik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

Hegazkinetan

Telefono mugikorrek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

Haurrak

Ez utzi telefonoa haurren eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu eta, horiek irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.

Larrialdi-deiak

Beharbada larrialdi-deiak ezingo dira sare guztietan erabili. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko.


Zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari galdetu.

Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste biltegitratze-teknologietan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- Erabili bakarrik LGren bateriak eta kargagailuak. LGren kargagailuak bateriaren bizitza ahalik eta gehien luzatzeko diseinatu dira.
- Ez desmuntatu bateria eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Garbiak eduki metalezko kontaktuak.
- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean. Bateria ehunka aldiz karga daiteke, hondatu arte.
- Aspaldian erabili ez baduzu, bateria kargatu egin behar duzu, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.

Telefonoaren zatiak

Aurreko ikuspegia



1. Entzungailuen konektorea

- Konektatu hemen entzungailuak.

2. Gora/behera alboko botoiak


- Tapa irekita dagoenean, deiak egiteko/jasotzeko moduan teklatuaren tonuaren bolumena kontrolatzen du.
- Telefonoz hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren bolumena kontrolatzen du.

3. Kameraren lentea

- ! **Oharra** Kameraren lentea zikina badago, irudiaren kalitatea okerragoa izan daiteke.



Atzeko ikuspegia



Telefona irekitu



1. Entzungailua

2. 10. Ezkerreko funtzio-tekla / eskuineko funtzio-tekla: teklen gainean pantailan agertzen den testuak adierazten dituen funtzioak betetzen dituzte tekla hauek.

3. Amena WAP tekla: Amena WAPera bizkor sartzeko tekla.

4. Bidaltzeko tekla: telefono-zenbakiak markatzen ditu eta sarrerako deiei erantzuten die. Sarrerako, irteerako eta galdutako azken deietara bizkor sartzeko ere balio du; horretarako, tekla sakatu behar da, modu ez-aktiboan dagoela.

5. Tekla alfanumerikoak: zenbakiak, letrak eta zenbait karaktere berezi idazteko balio dute.

6. Mikrofona: dei batean desaktiba daiteke, pribatutasuna dela eta.

7. Pantaila nagusia: telefonoaren egoera-ikonoak, menu-elementuak, web-eko informazioa, irudiak eta beste zenbait elementu bistaratzeko dituzte koloretan.

8. Nabigazio-tekla: menuetan ibiltzeko eta kurtsoa mugitzeko erabil daitezke.



9. Berresteko tekla: hautatu menuaren aukerak eta berresti ekintzak.

11. Kamera-tekla: kameraren menua irekitzen du zuzenean.

12. Amaitzeko/pizteko tekla: dei bat amaitzeko edo ez onartzeko erabiltzen da, baita modu ez-aktibora itzultzeko ere. Luze sakatu telefonoa pizteko eta itzultzeko.

13. Ezabatze tekla: sakatzen den bakoitzean karaktere bat ezabatzen du. Luze sakatu informazio guztia ezabatze. Aurreko pantailara itzultzeko ere erabiltzen da.

14. Funtzio-tekla berezia:

-  tekla hau luze sakatuta, bibrazio modua aktibatzen edo desaktibatzen du.
-  : nazioarteko deietarako "+" karakterea sartzen du.
-  : telefono-zenbaki bat idazten ari denean, zenbakien artean zuriune bat sartzen du.

Pantailaren informazioa

Hurrengo taulan telefonoaren pantailan azaltzen diren hainbat adierazle edo ikono deskribatzen dira.

Pantailako ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Sarearen seinalearen intentsitatea adierazten du.
	Dei bat martxan dagoela adierazten du.
	Beste sare batera igarotzen ari dela adierazten du.
	GPRS (General Packet Radio Service, pakete bidezko irratiz-zerbitzua) zerbitzua erabil daitekeela adierazten du.
	Alarma aktibatuta dagoela adierazten du.
	Bateriaren karga-egoera adierazten du.
	Testu-/irudi-mezu labur bat jaso duzula adierazten du.
	Ahots-mezu labur bat jaso duzula adierazten du.

Ikonoa	Deskribapena
	Bibrazioaren profila aktibatu dela adierazten du.
	Profil ozena aktibatu dela adierazten du.
	Profil isila aktibatu dela adierazten du.
	Entzungailuen profila aktibatu dela adierazten du.
	Deiak desbideratzeko aukera aktibatu dela adierazten du.
	Profil normala aktibatu dela adierazten du.
	Push mezuen zerbitzua erabil daitekeela adierazten du.
	Telefona WAPera sartzen ari dela adierazten du.
	GPRS erabiltzen ari dela adierazten du.
	Orrialde seguru batean sartu dela adierazten du.

Hasiera Pantaila

Amenak Hasierako pantaila tekla ipini dio telefonoari. Horren bidez, bizkor sar zaitezke gehien erabiltzen dituzun funtzioetara eta, halaber, bizkor ikus ditzakezu galdutako deiak edo jasotako mezu berriak.



Sarbide azkarra

Hasierako pantailaren bidez telefonoaren funtzio garrantzitsuenetara eta Amenaren zerbitzu berezietara sar zaitezke bi tekla bakarrik sakatuta. Orain, inoiz baino azkarrago egin ahal izango dituzu hauek: testu-mezu bat bidali, AMENAr zuzenean sartu, kontaktu bat ikusi eta deiak erregistratu.

Aukera guztiak


Pantailako ezkerreko ikonoetako bat hautatzean, aukera gehiago dituen zerrenda bistaratuko da. Hala, adibidez, Amenaren WAP atarira sartu nahi duzunean, atariko musikaren, jokoan, informazioaren edo web orrira zuzenean sartu nahi duzun aukeratu ahal izango duzu.

SIM txartela eta telefonoaren bateria jartzea

Bateria atera aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.

1. Atera bateria.


Lerratu gorantz bateria askatzeko irtengunea eta atera bateriaren goiko aldea.



❗ **Oharra** Piztuta dagoela telefonoaren bateria ateratzen baduzu, telefonoa honda daiteke.

2. Sartu SIM txartela.

Sartu SIM txartela dagokion tokian. Mugitu SIM txartela dagokion tokirantz. Egiaztatu SIM txartela ongi eta txartelaren urre-koloreko eremua beherantz jarrita ipini duzula. SIM txartela ateratzeko, sakatu pixka bat eta tira egin kontrako noranzkoan.




SIM txartela ipintzeko SIM txartela kentzeko

❗ **Kontuz** SIM txartelaren metalezko kontaktua oso erraz honda daiteke. Txartela kontu handiz erabili, txartelari dagozkion jarraibideei jarraiki.




3. Sartu bateria.

Lehenbizi, sartu bateriaren beheko alde bateriari dagokion tokiaren beheko aldean. Bultza bateriaren goiko aldeari, dagokion tokian sartu arte.



Bateria kargatzea

Telefonoarekin batera emandako kargagailua konektatu baino lehen bateria ipini behar duzu.



1. Gezia zuri begira duzula, irudian ikusten den bezala, sartu kargagailuaren entxufea telefonoaren beheko aldeko hartunean, ongi sartu duzula adierazten duen hotsa entzun arte.
2. Konektatu kargagailuaren beste muturra elektrizitate-hartunera. Telefonoaren kaxako kargagailua bakarrik erabili.
3. Kargatzen ari denean, bateriaren ikonoko murratxoak mugitu egingo dira, eta, karga amaitzean, geldirik egongo dira.

❗ Kontuz! • Ez behartu konektorea, telefonoa edo kargagailua honda baitaitezke.

- Bateria beste herrialde batean kargatu behar baduzu, lehenbizi egiaztatu korrante egokia lortzeko entxufean egokigailurik ipini behar duzun.
- Ez kendu bateria edo SIM txartela telefonoa kargatzen ari den bitartean.

❗ Oharra

- Deskarga elektrikoak edo suteak eragozteko, deskonektatu elektrizitatearen kablea eta kargagailua ekaitz elektrikoak daudenean.
- Ez ukitu bateria ertz zorrotzak dituzten elementuekin (animalien hortzak edo erpeak). Sutea eragin daiteke.
- Ez egin deirik eta ez erantzun deiei telefonoa kargatzen ari den bitartean; izan ere, zirkuitulaburra gerta daiteke edo deskarga elektrikoak edo sute eragin daiteke.

Kargagailua deskonektatzea

1. Telefonoa kargatutakoan, bateria-ikonoan mugitzen ari diren barrak gelditu eta '¡Completa!' azaltzen da pantailan.
2. Kendu kargagailuaren entxufea eta telefonotik deskonektatzeko, sakatu alboko botoiei (ikus irudia).



❗ Nota • Telefonoa erabili aurretik, ziurta ezazu bateria erabat kargatuta dagoela.

- Ez atera bateria edo SIM txartela telefonoa kargatzen ari den bitartean.
- Bateria ongi kargatuta ez badago, itzali telefonoa, piztu berriz telefonoa pizteko teklaekin eta, gero, kargatu bateria berriro. Bateria atera eta berriz sartu ondoren, kargatu bateria



Telefonia piztea eta itzaltzea

Telefonia piztea

1. Instalatu bateria kargatua telefonon. Bateria kargatuta ez badago, sartu telefonon eta konektatu kanpoko elikadura-iturri batera (bidaiarako kargagailua, pizgailu-kargagailua edo automobilerako esku libreko kit bat).
2. Sakatu  segundo batzuetan, LCD pantaila piztu arte.
3. **Solicitud PIN** aukeraren egoeraren arabera, baliteke piztean PIN kodea eskatzea.

Telefonia itzaltzea

1. Sakatu  segundo batzuetan, LCD pantaila itzali arte.

Sarbide-kodeak

Sarbide-kodeak erabil ditzakezu, telefonia baimenik gabe inork erabil ez dezan. Sarbide-kodeak (PUK eta PUK2 kodeak salbu) [7-5-5 menuko] **Cambiar código** funtzioa erabiliz alda daitezke (ikus 72. orrialdea).

PIN kodea (4-8 digitu)

PIN kodea (identifikazio pertsonaleko zenbakia) SIM txartela baimenik gabe erabiltzetik babesten du. PIN kodea SIM txartelarekin batera eman ohi da. **Solicitar código PIN** aukera aktibatuta badago, telefonoak kode hau eskatuko du pizten den bakoitzean. **Solicitar código PIN** aukera desaktibatuta badago, telefonia zuzenean konektatuko da sarera PIN koderik gabe.

PIN2 kodea (4-8 digitu)

PIN2 kodea —SIM txartel batzuekin ematen dute— funtzio batzuetara sartzeko behar izaten da, hala nola **Aviso de gastos de llamada** eta **Número de marcación fija** aukeretara. Funtzio horiek SIM txartelak barne hartzen baditu erabili ahal izango dira soilik. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu sare-operadorea.



PUK kodea (4-8 digitu)

PUK kodea (PIN kodea desblokeatzeko kodea) blokeatuta dagoen PIN kode bat aldatzeko behar da. PUK kodea SIM txartelarekin batera ematen da. Eman ez badizute edo galdu baduzu, jarri harremanetan dagokizun zerbitzu-hornitzailearekin hari eskatzeko.

PUK2 kodea (4-8 digitu)

PUK2 kodea batzuetan SIM txartelarekin batera ematen da eta blokeatutako PIN2 kodea aldatzeko behar izaten da. Kodea galdu egin baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasun-kodea (4-8 digitu)

Segurtasun-kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzetik babesten du. Lehenespén gisa, kodea "0000" da. Telefonotik sarrerak ezabatzeko eta **Reiniciar config.** menua aktibatzeke erabiltzen da. Gainera, nahitaez erabili behar da telefonoaren blokeo-funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke, telefonoa baimenik gabe erabil ez dadin. Lehenespén gisa jarritako balioa **Conf. seguridad** menutik alda daiteke.

Murrizketa-pasahitza

Restricción de llamadas funtzioa erabiltzeko murrizketa-pasahitza behar da. Sare-operadoreak zerbitzu hau kontratatzeke behar den pasahitza emango dizu. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 70. orrialdean.

Deiak egitea eta amaitzea

Dei bat egitea

1. Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
2. Sartu telefono-zenbakia, tokiko aurrezenbaki eta guzti.
 Sakatu () tekla zenbaki osoa ezabatzeko.
3. Sakatu bidaltzeko tekla () zenbakira deitzeko.
4. Amaitutakoan, sakatu () edo eskuineko funtzio-tekla.

Bidaltzeko teklaekin dei bat egitea

1. Deiak jasotzeko/egiteko moduan, sakatu bidaltzeko tekla () eta sarrerako, irteerako eta galdutako azken deien telefono-zenbakiak azalduko dira.
2. Hautatu zenbakietako bat gora/behera nabigazio-teklak erabiliz.
3. Sakatu 

Nazioarteko deiak egitea

1. Luze sakatu  tekla nazioarteko aurrezenbakia sartzeko. '+' karaktereak automatikoki hautatzen du nazioarteko sarbide-kodea.
2. Sartu herrialdeko aurrezenbakia, tokiko aurrezenbakia eta telefono-zenbakia.
3. Sakatu 

Dei bat amaitzea

Deia bukatutakoan, sakatu () tekla.

Kontaktuen zerrendatik dei bat egitea

Maiz erabiltzen dituzun telefono-zenbakiak eta izenak SIM txartelaren eta telefonoaren memorian jaso ditzakezu. Zenbaki bat markatzeko kontaktuen zerrendako izen bat hautatu besterik ez duzu egin behar.

Bolumena doitzea

Dei batean entzungailuaren bolumena doitu nahi baduzu, erabili alboko teklak (). Bolumena igotzeko sakatu alboko goiko tekla eta bolumena jaisteko alboko beheko tekla.



- ❗ **Oharra** Deiak egiteko/jasotzeko moduan, teklatuaren bolumena doitzeko alboko tekla sakatu behar dituzu.

Dei bati erantzutea

Norbaitek deitzen zaituenean, telefonoak joko du, eta pantailaren erdialdean dagoen telefonoaren ikonoak dir-dir egingo du. Dei-egilea identifika badaiteke, haren telefono-zenbakia (edo izena eta irudia, telefono-aurkibidean badaude) bistaratuko da.

1. Dei bati erantzuteko, ireki telefonoaren tapa, erantzun gisa **Abrir tapa** ezarri bada. Ikus 69. orrialdeko [7-4-2 menua] informazio gehiago lortzeko.

- ❗ **Nota** Erantzun gisa edozein tekla sakatzea ezarri baduzu (ikus 69. orrialdea), deia erantzuteko edozein tekla saka dezakezu,  eskuineko funtzio-tekla izan ezik.



Sarrerako dei bat ez onartzeko, sakatu luze alboko tekletako bat, telefonoa ireki gabe.



Telefono-aurkibidea edo bestelako menu-aukerak erabiltzen dituzun bitartean, deiei erantzun diezaiekezu.

2. Deia amaitzeko, itxi tapa edo sakatu  tekla.

Bibrazio-modua (azkarra)

Bibrazio-modua aktibatzeko, sakatu luze ezkerreko  nabigazio-tekla telefonoa ireki ondoren.

Seinalearen indarra

Seinalearen indarra egiazta dezakezu telefonoaren LCD pantailan azaltzen den () seinale-adierazlearen bitartez. Seinalearen indarra aldakorra izan daiteke, eraikinen barnean batez ere; hori gertatuz gero, jarri leihoaren ondoan seinalearen indarra hobetzen den ikusteko.

Testua idaztea

Telefonoaren teklatura erabil dezakezu karaktere alfanumerikoak sartzeko. Adibidez, testua sartu behar izaten da telefono-aurkibidean izenak gordetzeko, mezu bat idazteko, agur pertsonal bat sortzeko edo egutegian gertakizunen plangintzak egiteko.

Testua idazteko modu hauek ditu telefonoak:

T9 modua

Modu honi esker, hitzak letra bakoitzeko tekla bakarra sakatuz idatz ditzakezu. Teklatuko tekla bakoitzak letra bat baino gehiago du. T9 moduak automatikoki konparatzen ditu sakatutakoak barneko hiztegi batekin, hitz zuzena zein den zehazteko; beraz, modu honekin tekla gutxiago sakatu behar dira ohiko ABC moduan baino. Testu prediktiboaren modua ere deitzen zaio.

ABC modua

Idatzi nahi duzun letrari dagokion tekla sakatuta idazten da modu honetan. Tekla behin, bitan, hirutan edo gehiagotan sakatu behar duzu, pantailan nahi duzun letra azaldu arte.


123 modua (zenbakien modua)

Sartu zenbakiak zenbakiko tekla behin sakatuta. Testua sartzeko eremu batean 123 modura pasatzeko, sakatu  tekla.

Testua idazteko modua aldatzea

1. Karaktereak sartzeko aukera ematen duen eremu batean zaudenean, testua idazteko moduaren adierazlea azalduko da pantailaren beheko eskuineko ertzean.

Testua idazteko modua



2. Testua sartzeko modua aldatzeko, sakatu . Edozein unean testua idazteko zein modutan zauden kontsultatu ahal izango duzu; horretarako, ikus pantailaren beheko eskuineko ertza.

► T9 modua erabiltzea

Testua sartzeko T9 sistema prediktiboaren bidez, gutxieneko pultsazio-kopuruarekin erraz sar daitezke hitzak. Tekla sakatzean, telefonoak ustez sartzen ari zaren karaktereak bistaratzen ditu, barnean duen hiztegian oinarrituta. Hiztegi hitz berriak ere sar ditzakezu. Letra berriak gehitzen diren neurrian, hitza aldatuz joango da eta hiztegi idatzitakoarekin antza gehien duen hitza bistaratuko da.

1. Testua idazteko T9 sistema prediktiboan hitzak osatzeko letrak sartzeko, sakatu  -tik  -ra dauden tekla. Idatzi nahi duzun letra bakoitzeko behin bakarrik sakatu tekla bakoitza.

- Hitza aldatu egiten da letrak idatzi ahal; beraz, ez kasurik egin pantailan azaltzen denari, tekla guztiak sakatu arte.

- Amaieran hitza zuzena ez bada, sakatu nabigazio-tekla beherantz behin edo gehiagotan, aukeran dauden gainerako hitzak kontsultatzeko.

Adibidea:

Sakatu     **Home** idazteko.

Sakatu     beheko nabigazio-tekla] **Inme** idazteko.

- Aukerako hitzen zerrendan idatzi nahi duzun hitza azaltzen ez bada, gehitu zerrendara ABC modua erabiliz.

- T9 moduaren hizkuntza aukeratzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Opciones] eta

, gero, hautatu **Idiomas T9**. Hautatu T9 modurako erabili nahi duzun hizkuntza. T9 modua desaktibatzeke, hautatu **T9 desactivado**. Telefonoak T9 modua izango du aktibatuta, lehenespenean gisa.

2. Sartu hitz osoa, edozein letra editatu edo ezabatu baino lehen.

3. Osatu hitz bakoitza zuriunearekin tekla sakatuta. Letrak ezabatzeko, sakatu . Hitz osoak ezabatzeko, luze sakatu  tekla. 

! Oharra Testua idazteko modutik idatzitako testua gorde gabe irteteko, sakatu  eta telefonoa deiak egiteko/jasotzeko modura itzuliko da.

► ABC modua erabiltzea

 -  bitarteko tekla erabili testua idazteko.

1. Sakatu letrari dagokion tekla:

-Behin sakatuta, lehenbiziko letra azalduko da

-Bitan sakatuta, bigarren letra azalduko da

-Eta horrela, nahi duzun letra bistaratu arte.

2. Zuriune bat sartzeko, sakatu  tekla behin. Letrak ezabatzeko, sakatu  tekla, eta, pantaila osoa ezabatzeko, luze sakatu



Oharra Kontsultatu taula hau, tekla alfanumerikoein erabil ditzakezun karaktereei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero.

Tekla	Karaktereak, bistaratzen diren ordenaren arabera	
	Letra larriak	Letra xeheak
 1	., / ? ! - : ' " 1	., / ? ! - : ' " 1
 2	A B C 2 Ä Å Á Â Ã Ä Å Æ Ç	a b c 2 ä å á â ã ä å æ ç
 3	D E F 3 Ê Ë Ì Î	d e f 3 ê ë ì î
 4	G H I 4 Î Ï Ñ Ò	g h i 4 î ñ ï ð
 5	J K L 5	j k l 5
 6	M N O 6 Ñ Ò Ó Ô Õ Ö Ø	m n o 6 ñ ò ó ô õ ö ø
 7	P Q R S 7 ß Š	p q r s 7 ß š
 8	T U V 8 Ü Ú Û Ü	t u v 8 ü ú û ü
 9	W X Y Z 9	w x y z 9
 0	zuriunea, 0	zuriunea, 0

► **123 modua erabiltzea (zenbakizko modua)**

123 moduak zenbakiak testu-mezuan sartzeko aukera ematen du (adibidez, telefono-zenbaki bat).

Kontaktuak

Telefono-zenbakiak eta dagozkien izenak gorde ditzakezu SIM txartelaren memorian, eta 500 zenbaki eta izen telefonoaren memorian. SIM txartela eta telefonoa berdin erabiltzen dira **Guía** menuan.



Sarrerako deien menua

Telefonoak hainbat kontrol-funtzio eskaintzen ditu, dei batean zehar erabil daitezkeenak. Dei batean funtzio horiek erabiltzeko, sakatu [Ops.] ezkerreko funtzio-tekla.

Hitz egiten ari zaren bitartean

Dei batean telefonoaren pantailan bistaratzen den menua ez da deiak egiteko/jasotzeko moduan azaltzen den menu nagusi lehenetsia. Ondoren deskribatzen dira aukerak.

Bigarren deia egitea

Telefono-aurkibidean zenbaki bat bilatu eta markatu daiteke beste dei bat egiteko; horretarako, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta hautatu **Buscar**. Dei batean markatutako zenbaki bat telefono-aurkibidean gordetzeko, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta, gero, aukeratu **Añadir nuevo**.

Bi dei txandakatzea

Bi dei txandakatzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Cambiar** edo sakatu  tekla.

Dei bati erantzutea

Telefonoak jotzean dei bati erantzuteko, sakatu  tekla. Hitz egiten ari zarela, telefonoak sarrerako dei bat duzula jakinaraz diezazuke; horretarako, txirrin bat egiten du entzungailuan eta adierazle bat azaltzen da pantailan, beste **dei bat zain** duzula adierazteko.

Funtzio horri **deia zain zaio**, eta sareak onartzen badu bakarrik erabil daiteke. Funtzio hau aktibatzeko eta desaktibatzeko argibide gehiago lortzeko, ikus Deia zain [3-3-4 menua] 45. orrialdean.

Deia zain funtzioa aktibatuta badago, lehenbiziko deia zain utzi eta bigarrenari erantzun diezaiokezu; horretarako, sakatu  edo hautatu ezkerreko funtzio-tekla [Responder].

Dei bat ez onartzeko

Sarrerako dei bati ez erantzuteko, sakatu  tekla. Dei bat aktibo baduzu, sarrerako dei bat ez onartzeko sakatu eskuineko funtzio-tekla [Finalizar] edo sakatu





Mikrofonoa desaktibatzea

Dei bat duzunean, mikrofonoa desaktiba dezakezu [Menú] tekla sakatuta eta gero **Silencio activado** aukeratuta. Aukera hori desaktibatu eta mikrofonoa berriz aktibatzeko, hautatu **Silencio desactivado**. Telefonoak mikrofonoa desaktibatzeko aukera aktibatuta baldin badu, deitzen duen pertsonak ez dizu entzungo, baina zuk bai hari.

Dei batean DTMF tonuak aktibatzea

DTMF tonuekin telefonogune automatizatu erabil dezake telefonoak. Dei batean DTMF tonuak aktibatzeko sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Activar DTMF**, eta desaktibatzeko, egin prozedura berbera.

Dei anizkoitzak edo konferentziak

Dei anizkoitzen edo konferentzien zerbitzuarekin, aldi berean pertsona batekin baino gehiagorekin hitz egin dezakezu, sare-operadoreak funtzio hau onartzen badu. Dei bat aktibatuta badago, beste bat zain badago eta biei erantzuten bazaie bakarrik ezar daiteke dei anizkoitz bat. Dei anizkoitz bat ezarritakoan, deia ezarri duen pertsonak deiak gehitu, deskonektatu edo kanpoan utz ditzake (alegia, konferentziatik dei bat amaitu gabe kanpo uztea).

Aukera horiek guztiak sarrerako deien menuan aurkituko dituzu. Gehienez, bost pertsonak har dezakete parte dei anizkoitz batean. Deia hasitakoan, zuk izango duzu kontrola eta zuk bakarrik gehitu ahal izango dituzu pertsona gehiago.

Bigarren deia egitea

Mugikorretik hitz egiten ari zarela bigarren deia egiteko, sartu bigarren zenbakia eta sakatu  tekla. Bigarren deia ezartzean, lehena zain geratzen da automatikoki. Bi dei txandakatzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Cambiar**.

Konferentzia ezartzea

Utzi dei bat zain, eta, beste deia aktibatuta dagoen bitartean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Conferencia/Unir**.



Konferentzia atxikitzea

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero, hautatu **Conferencia/Retener todas**.

Zain dagoen konferentzia aktibatzea

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero, hautatu **Conferencia/Unir**.

Konferentziari deiak gehitzea

Lehen ezarritako konferentzia bati dei bat gehitzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta aukeratu **Conferencia/Unir**.

Konferentzia bateko parte-hartzaileak bistaratzea

Konferentzia bateko parte-hartzaileen zenbakiak telefonoaren pantailan ikusteko, erabili gora/behera nabigazio-teklak.

Konferentzia batean dei pribatu bat egitea

Konferentziako parte-hartzaileetako batekin dei pribatu bat izan nahi baduzu, bistaratu parte-hartzailearen zenbakia eta sakatu ezkerreko funtzio-tekla. Hautatu **Conferencia/Privada**, gainerako deiak zain uzteko.

Konferentzia amaitzea

Deia amaitzeko, sakatu  tekla. Konferentzia amaitzeko, sakatu funtzio anitzeko ezkerreko tekla eta hautatu **Conferencia/ Fin llamadas**. Dei guztiak (aktibatuta zein zain daudenak) amaitu egingo dira.

Puntu honetan, menuen egitura dago, eta informazio hau ematen du:

► Menu-aukera bakoitzari dagokion zenbakia.

► Funtzioaren deskribapena dagoen orrialdea.

Menura sartzeko ezkerreko funtzio-tekla [Menú], nabigazio-teklak eta [Aceptar] tekla erabil ditzakezu. Halaber, sarbide bizkorra erabili eta menuari dagokion zenbakizko tekla saka dezakezu, ezkerreko funtzio-tekla [Menú] sakatutakoan.



1. Registro llamadas (ikus 36. orrialdea)

- 1 Llam. perdidas
- 2 Llam. recibidas
- 3 Llam. enviadas
- 4 Todas llamadas
- 5 Borrar últimas
- 6 Gastos llamada
- 7 Info GPRS



2. Guía (ikus 39. orrialdea).

- 1 Contactos
- 2 Añadir nuevo
- 3 Grupos usuarios
- 4 Marc. rápida
- 5 Núm propios
- 6 Mi tarjeta visita
- 7 Config. agenda



3. Ajustes (ikus 43. orrialdea)

- 1 Fecha y Hora
- 2 Teléfono
- 3 Llamada
- 4 Seguridad
- 5 Red
- 6 GPRS
- 7 Estado memoria
- 8 Restablecer ajustes



4. Cámara (ikus 50. orrialdea)

- 1 Hacer foto
- 2 Continuo
- 3 Ajustes



5. Mensajería (ikus 53. orrialdea)

- 1 Nuevo mensaje
- 2 Entrada
- 3 Borrador
- 4 Salida
- 5 Oir buzón de voz
- 6 Info. mensaje
- 7 Plantillas
- 8 Ajustes



6. Amena (ikus 64. orrialdea)

- 1 Navega con Amena
- 2 Catálogo de juegos
- 3 Catálogo de música
- 4 Correo Amen@mail
- 5 Chat
- 6 Amena siempre al día
- 7 Favorito
- 8 Ir a URL
- 9 Ajustes
10. Servicio SIM



7. Perfiles (ikus 68. orrialdea)

- 1 Sólo vibracion
- 2 Silencio
- 3 Fuerte
- 4 Auriculares
- 5 Normal



8. Álbum multimedia (ikus 70. orrialdea)

- 1 Fotos
- 2 Imágenes
- 3 Sonidos
- 4 Juegos y aplicaciones
- 5 Imágenes
- 6 Melodías
- 7 Juegos




9. Más (ikus 73. orrialdea).

- 1 Organizador
- 2 Alarma
- 3 Calculadora
- 4 Hora mundial
- 5 Conver. unidad
- 6 Grabadora

Funtzioak eta aukerak hautatzea

Telefonoa pertsonalizatzeko aukera eskaintzen dizuten funtzio multzoa dauka telefonoak. Menu eta azpimenuetan daude funtzio horiek, eta bi funtzio-teklen bidez () eta () sar zaitezke horietara. Menu eta azpimenu bakoitzak funtzio jakin bateko aukerak ikusteko eta aldatzeko aukera ematen du.

Tekla hauen funtzioak menuaren arabera aldatzen dira. Pantailaren beheko lerroan, tekla bakoitzaren gainean azaltzen den funtzioa izango dute.



Sakatu funtzio anitzeko eskuineko tekla dagokion menura sartzeko.

Sakatu funtzio anitzeko ezkerreko tekla dagokion menura sartzeko.



Galdutako, jasotako eta egindako deien erregistroa ikus daiteke sareak zerbitzuaren barnean linea identifikatzeko zerbitzua (ILL) onartzen badu.

Deiari dagozkion zenbakia eta izena (posible bada) datarekin eta orduarekin batera bistaratzen dira. Halaber, deien iraupena eta kostua ikus ditzakezu.

Galdutako deiak 1-1 menua

Aukera honek hartu ez dituzun azken 10 deiak ikusteko aukera ematen du. Telefono-zenbaki bat hautatuta, zenbaki horretara deitzeko, bidaltzeko tekla (telefono berdea) sakatu behar duzu. [Opciones] ezkerreko funtzio-tekla sakatuta, aukera hauek dituzu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea
- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea

Jasotako deiak 1-2 menua

k jaso dituzun azken 10 deiak ikusteko aukera ematen du. Telefono-zenbaki bat hautatuta, zenbaki horretara deitzeko, bidaltzeko tekla (telefono berdea) sakatu behar duzu. [Opciones] ezkerreko funtzio-tekla sakatuta, aukera hauek dituzu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea
- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea

Egindako deiak 1-3 menua

Irteerako azken 20 deiak (egindakoak edo saiaturakoak) ikusteko aukera ematen du aukera honek. Telefono-zenbaki bat hautatuta, zenbaki horretara deitzeko, bidaltzeko tekla (telefono berdea) sakatu behar duzu. [Opciones] teklarekin, aukera hauek dituzu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea



- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea
- ❗ **Oharra** Zerrendako dei-erregistro guztiak ezaba ditzakezu egindako deiak aukeratuta azken deiak ezabatzeko menuan.

Dei Guztiak

1-4 menua

Jasotako eta egindako dei guztiak ikusteko aukera ematen dizu.

Azkenak ezabatzea

1-5 menua

Galdutako, jasotako edo egindako deien zerrenda ezaba dezakezu, baita zerrenda guztiak batera ezabatu ere –horretarako, hautatu Todas Llamadas–.

Deiaren gastuak

1-6 menua

Deiaren gastuak

1-6-1 menua

Deien iraupena ikusteko aukera ematen du. Gora/behera nabigazio-teklak erabiliz azpimenuetan sartzen bazara, pantailaren beheko aldean azalduko da deiaren iraupena.

Kontagailua zeroan jartzeko hautatu Restablecer.

► **Última Llam.:** azken deiaren iraupena.

► **Todas Llam.:** kronometroa azken aldiz hasieratu zenetik egindako eta jasotako deien iraupen osoa.

► **Llam. recibidas:** jasotako deien iraupena.

► **Llam. enviadas:** egindako deien iraupena.

► **Restablecer:** dei-kontagailuaren erregistro guztiak ezaba ditzakezu.

- ❗ **Oharra** Zerbitzu-hornitzaileak deiengatik fakturatzan duen denbora erreala aldatu egin daiteke sareak dituen funtzioen arabera, fakturazioan aplikatutako biribilketaren arabera, etab.

Deien kostuak

1-6-2 menua

Sare-zerbitzu horrekin azken deiaren kostua eta deien kostu osoa kontsulta ditzakezu. Deiaren kostua pantailaren beheko aldean bistaratzen da. Deiaren kostua zeroan jartzeko, hautatu Restablecer todo. PIN2 kodea sartzeko eskatuko dizu.

Deien erregistroak



- ❗ **Oharra** Zerbitzu-hornitzaileak deiengatik fakturatzeko duen kostu erreala aldatu egin daiteke sareak dituen funtzioen arabera, fakturazioan aplikatutako biribilketaren arabera, zergen arabera, etab.

Doikuntzak

1-6-3 menua

- ▶ **Def. tarifa:** moneta-mota eta unitatearen prezioa zehatz ditzakezu. Jarri harremanetan operadorearekin unitateen prezioak lortzeko. Menu honetan moneta edo unitatea aukeratzeko, PIN2 kodea sartu behar duzu.

- ❗ **Oharra** Unitate guztiak erabili ondoren, ezin da dei gehiago egin, Jarrialdikoak izan ezik. Erabiltzen den SIM txartel-motaren arabera, PIN2 kodea sartu behar duzu deien kontsumo-muga ezartzeko.

- ▶ **Def. crédito:** deien kostuaren muga ezar dezakezu sare-zerbitzu honekin, hautatutako gastu-unitatearen arabera. **Leer** hautatzen baduzu, gainerako unitateen kopurua bistaratzen da. **Cambiar** hautatzen baduzu, gastuaren muga alda daiteke.

- ▶ **Mostrar auto:** sare-zerbitzu honen bidez, automatikoki ikus daiteke azken deien kostua. **Mostrar auto.** menuan Activado hautatzen baduzu, azken deia-erregistroaren kostua ikus dezakezu, deia amaitutakoan.

GPRS inform.

1-7 menua

GPRS bidez transferitutako datu-kopurua ikus dezakezu. Gainera, linean zenbat denboran dagoen ikus dezakezu. (GPRS, General Packet Radio Service, Pakete bidezko irrati-komunikazioen zerbitzu orokorra).

Deiaren iraupena

1-7-1 menua

Azken deiaren eta dei guztien iraupena ikus dezakezu, baita denbora-kontagailuak hasieratu ere —horretarako, hautatu Restablecer—.

Datu-bolumenak

1-7-2 menua

Bidalitako eta jasotako datuen edo datu guztien bolumenak ikus ditzakezu. Halaber, kontagailu guztiak hasieratzeko, hautatu Restablecer todo.

Telefono-zenbakiak eta haiei dagozkien izenak SIM txartelaren edo telefonoaren memorian gorde ditzakezu.

- Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Menú] deiak egiteko/jasotzeko moduan, hautatu Guía eta hurrengo menua bistaratuko da:

Kontaktua

2-1 menua

1. Hautatu Contactos eta adierazi bilatu nahi duzun izena.
2. Idatzi bilatu nahi duzun izenaren lehen letra eta sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Buscar].
- ❗ **Oharra** Telefono-aurkibideko sarrera batetik bestera joateko, zuzenean ezkerreko funtzio-tekla [Lista] sakatu behar da.
3. Izena aurkitutakoan, dagokion zenbakira deitzeko sakatu [Enviar] tekla. Bestela, sakatu [Opciones] ezkerreko tekla, aukera hauek erabiltzeko.

► **Editar:** zerrendako izena, zenbakia eta taldea editatzeko.

► **Escribir:** erabili mezuak idazteko.

► **Copiar:** SIM txarteletako aurkibideko sarrera telefonoaren memorian kopiatzeko eta alderantziz.

► **Núm. principal:** gehien deitzen duzun mugikorreko, etxeko edo lantokiko zenbakietako bat hautatzeko. Ezarritakoan, zenbaki hori nagusia izango da.

► **Borrar:** sarrera ezabatzen du.

Berria gehitzea

2-2 menua

Funtzio honekin sarrera bat gehi dezakezu.

Bi memoria daude: telefonoaren memoria eta SIM memoria. Telefonoaren memorian 500 sarrera sartzen dira eta izen bakoitzeko 20 karaktere idatz daitezke; SIM txartelaren memoriaren edukiera, berriz, operadorearen araberakoa da. kontaktu berri bat gehitzeko, eman pauso hauek:

1. Joan **Añadir nuevo** aukerara eta sakatu [Seleccionar].
2. Hautatu non gorde nahi duzun kontaktua: SIM txartelaren memorian edo telefonoaren memorian.

Telefono-aurkibidea



Memoria hautatzeko, joan Memoria predeterminada aukerara [2-7-1 menua].

► Sarrera berriak gehitzea SIM memorian

Izena eta zenbakia sartzeko eta taldea hautatzeko aukera ematen du (SIM txartelaren arabera).

► Sarrera berriak gehitzea telefonoaren memorian

Izen bat eta zenbaki bat sar dezakezu eta taldea aukera dezakezu.

Erabiltzaileen taldeak 2-3 menua

Telefono-aurkibideko sarrerak zazpi taldetan sailka daitezke. Erabili funtzio hori talde bakoitzari tonu bat eta/edo ikono grafiko bat esleitzeko. Horrela dei-egilea zein taldekoa den identifikatu ahal izango duzu.

1. Hautatu **Grupos de usuarios**. Talde guztien zerrendak bistaratuko dira: **Familia, Amigos, Compañeros, VIP, Grupo1, Grupo2** eta **Otros**.
2. Hautatu zein talderekin aritu nahi duzun; horretarako, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Seleccionar]. Azpimenu hauek agertuko dira.

► **Lista miembros**: taldeko kideen zerrenda bistaratzen da.

► **Tono grupo**: talde jakin bateko pertsona baten deia jasotzean erabiliko den tonua hautatzeko aukera ematen du.

► **Icono grupo**: taldeko pertsona baten deia jasotzean bistaratuko den ikono grafikoa hautatzeko balio du.

► **Añada miemb.**: taldean kide berri bat gehitzeko.

► **Borrar miembro**: taldeko kide bat kentzeko.

► **Renombrar**: taldeari izen berri bat esleitzeko.

Markaketa bizkorra 2-4 menua

2-9 tekletako bat eslei diezaiokezu zerrendako kontaktu bati. Konfiguraturako tekletako bat segundo batzuetan sakatzen baduzu, esleituta duen kontaktuari deituko dio.

1. Joan Marcación rápida aukerara eta gero sakatu [Seleccionar].



2. Marcación rápida aukeran zenbaki bat gehitzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Seleccionar]. Bilatu izena aurkibidean.
3. Markaketa bizkorreko zenbaki bat aldatu edo ezabatu, dei bat egin edo mezu bat bidal dezakezu, ezkerreko funtzio-tekla [Opciones] sakatuta.

Norberaren zenbakiak (SIM txartelaren arabera) 2-5 menua

Hiru zenbaki gordetzeko aukera ematen du, adibidez, SIM txartelaren telefono-zenbakia.

Nire bisitza-txartela 2-6 menua

Aukera honen bidez bisita-txartela sor dezakezu. Sartu izena, telefono mugikorraren zenbakia, zk. partikularra, bulegoko zenbakia, faxa eta helbide elektronikoa.

Agenda konfiguratzeara 2-7 menua

Aurrez zehaztutako memoria

SIM txartelaren memoria edo telefonoarena hauta dezakezu, aurkibidearen funtziorako. **Variable** hautatzen baduzu,

sarrera bat gehitzean, non gorde nahi duzun adierazteko esango dizu telefonoak.

Aukerak ikustea

Kontaktuak nola bistaratzen diren ikus daiteke. Aukerak hauek dira:

- **Sólo nombre:** telefono-aurkibideko zerrendan izena bakarrik azaltzeko moduan ezartzen du.
- **Con fotos:** izaerari eta irudiari buruzko informazioarekin ezartzen du telefono-aurkibidearen zerrenda.
- **Nombre y número:** telefono-aurkibidearen zerrenda izena eta zenbakia ikusteko moduan ezartzen du.

Zerbaiten arabera bilatzea

Joan **Buscar por** aukerara, eta gero sakatu  [Selec.].

- **Variable:** bilaketa nola egin galdetuko dizu telefonoak.
- **Nombre o número:** telefonoak izenaren edo zenbakiaren arabera bilatuko du sarrera.



Dena kopiatzea/Dena mugitzea

Sarrerak kopiatu edo mugi ditzakezu SIM txartelaren memoriatik telefonoaren memoriara, eta alderantziz.

- **SIM a téléf.:** SIM txartelego sarrerak telefonoaren memoriara kopiatzeko/mugitzeko aukera ematen du.
- **Téléf. a SIM:** telefonoaren memoriako sarrerak SIM txartelera kopiatzeko/mugitzeko aukera ematen du.

Aukera hauek ditu:

- **Copiar todo:** jatorrizko markaketa-zenbakiak gordetzen dira.
- **Mover todo:** jatorrizko markaketa-zenbakiak ezabatzen dira.

Erabiltzen ari den memoria

SIM txartelaren eta telefonoaren memorien egoera ikus dezakezu.

Kontaktuak ezabatzea

SIM txartelego eta telefonoko sarrera guztiak ezaba daitezke. Funtzio hau erabili ahal izateko, beharrezkoa da segurtasun-kodea sartzea. Sakatu.  deia jasotzeko/egiteko modura itzultzeko.

Zerbitzu-zenbakia (SIM txartelaren arabera)

Erabili operadoreak esleitutako SDN zenbakien (zerbitzuen markaketa-zenbakiak) zerrendak ikusteko. Zenbaki horien artean daude bezeroarentzako arreta-zerbitzuetako, telefono-kontsultetako eta ahots-postontziko zenbakiak.

1. Hautatu N° marcación servicio.
2. Erabil ditzakezun zerbitzuen izenak agertuko dira.
3. Erabili gora/behera nabigazio-teklak, zerbitzu bat hautatzeko. Sakatu .

Telefonoaren hainbat parametro konfiguratzeko balio du. Sakatu Menú  eta hautatu Ajustes nabigazio-teklekin.

Eguna eta ordua

3-1menua

Aukera honekin bistaratutako data eta ordua alda ditzakezu.

Aukera hauek ditu:

Eguna

3-1-1 menua

Eguna, hila eta urtea zehazteko aukera ematen du.

Egunaren formatua

3-1-2 menua

Dataren formatua alda daiteke:

EE/HH/UUUU (eguna/hila/urtea)

HH/EE/UUUU (hila/eguna/urtea)

UUUU/HH/EE (urtea/hila/eguna)

Ordua

3-1-3 menua

Telefonoko ordua alda dezakezu.

Orduaren formatua

3-1-4 menua

Orduaren formatua alda daiteke:

24 ordu

12 ordu

Telefonoa

3-2 menua

Telefonoarekin lotutako funtzioak ezar ditzakezu.

Pantaila

3-2-1 menua

► **Papel tapiz:** hautatu deiak egiteko/jasotzeko moduan LCD pantailan bistaratuko den horma-papera.

► **Color de menú:** menuaren kolorea aldatzeko balio du: Orange, Color1, Color2, Color3.

► **Texto inactiv.:** Activ. hautatuta, menuan deiak jasotzeko/egiteko egoeran azaltzen den testua pertsonalizatzeko aukera duzu.



► **Luz de fondo:** telefonoak hondoko argia erabiliko duen edo ez hautatzeko. Hondoko argia desaktibatzen bada, luzatu egingo da jarduerarik gabeko/deitzeko denbora.

► **Ventana de información:** hautatutako menua ireki baino lehen zein egoeratan dagoen bistaratzeko aukera ematen du. Egoera pantailaren beheko aldean bistaratzen da.

Hizkuntza

3-2-2 menua

Pantailako hizkuntza hauta dezakezu. Hizkuntzaren aukera Automático gisa doitzen bada, hizkuntza automatikoki hautatuko da erabilitako SIM txarteleko hizkuntzaren arabera. Telefonoak ez badu SIM txartelaren hizkuntza onartzen, ingelesa ezarriko da.

Deitzea

3-3 menu

Deien doikuntzak aldatzeko aukera ematen du.

Deiak desbideratzea

3-3-1 menua

Deiak desbideratzeko zerbitzuari esker, sartzen diren ahots-deiak, faxak eta datuak beste zenbaki batera desbidera daitezke. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Desvío llam.: ahots-deiak automatikoki desbideratzen ditu.

Comunicando: telefonoa erabiltzen ari zaren bitartean jasotzen dituzun ahots-deiak desbideratzen ditu.

Si no hay respuesta: erantzuten ez diren ahots-deiak desbideratzen ditu.

llocalizable: telefonoa itzalita badago edo estaldurarik ez badu, jasotako ahots-deiak desbideratzen ditu.

Llamad. datos: datu-deiak, baldintzarik gabe, PCrako konexioa duen zenbaki batera bidaltzen ditu.

Llamadas fax: fax-deiak, baldintzarik gabe, faxerako konexioa duen zenbaki batera bidaltzen ditu.

Aukera horiek menu hau dute:

► **Activar:** dagokion zerbitzua aktibatzen du.



- **Al centro de buzón de voz:** deia mezuen zentrora bidaltzen du.

- **A otro número:** deia zein zenbakitara desbideratu aukera daiteke.

- **A número favorito:** desbideratutako azken bost zenbakiak egiazta daitezke.

► **Cancel.:** deiak desbideratzeko egindako aukera bertan behera uzten du.

► **Ver estado:** zerbitzuaren egoera ikusteko aukera ematen du.

► **Cancelar todo:** deiak desbideratzeko doikuntza guztiak ezeztatzen ditu.

Erantzuteko modua

3-3-2 menua

Hautatu dei bati erantzuteko modua.

Abrir tapa: telefonoak jotzean, erantzuteko tapa ireki besterik ez duzu egin behar.

Pulse cualq. Tecla: telefonoak jotzean, edozein tekla sakatuta —  tekla eta eskuineko funtzio-tekla()izan ezik— erantzun diezaiokezu deiari.

► **Sólo tecla enviar:** bidaltzeko tekla sakatuta bakarrik erantzun diezaiokezu dei bati.

Nire zenbakia bidaltzea

3-3-3 menua

Sare-zerbitzu horrekin erabaki dezakezu dei-hartzaileak zure telefono-zenbakia ikusterik izango duen (Activado) edo zenbakia ezkutuan izango den (Desactivado). Hautatu Establecido por red operadoreak ezarritako telefono-konfigurazioa ipintzeko.

Deia zain (sare-zerbitzua)

3-3-4 menua

Hitz egiten ari zarela, sareak beste dei baten berri ematen dizu. Hautatu Activar sareak deia zain funtzioa aktibatzeko, Cancelar funtzio hori desaktibatzeko edo Ver estado funtzioa aktibatuta dagoen edo ez egiaztatzeko.



Abisuak minutu oro

3-3-5 menua

Aktibatzen bada, telefonoak txirrria joko du minuturo dei batean, deiaren iraupenaren berri emateko.

Automatikoki berriz deitzea

3-3-6 menua

Aktibatzen bada, telefonoak konektatzeko bost saiakera egingo ditu gehienez, dei bat egiteko saiakerak huts egiten badu.

Segurtasuna

3-4 menua

Telefonoaren hainbat funtzio babes daitezke kodeak eta pasahitzak erabiliz. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 22-23. orrialdeetan.

PINa eskatzea

3-4-1 menua

PINa eskatzeko aktibatzen bada, PINa sartu beharko duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean. Beraz, zure PIN kodea ez dakien inork ezin izango du zure telefonoa erabili zure baimenik gabe.

- ❗ **Oharra** PINa eskatzeko funtzioa desaktibatzeke, PINa sartu beharko duzu.

- **Activ.:** PIN kodea idatzi behar duzu telefonoa piztenduzun bakoitzean.
- **Desac.:** telefonoa pizten duzunean, zuzenean konektatzen da sarera.

Telefonoa blokeatzea

3-4-2 menua

Segurtasun-kodea erabil dezakezu, telefonoa baimenik gabe inork erabil ez dezan. Telefonoa blokeatzeko aukera "Activ." gisa hautatuta badago, telefonoa pizten duzun bakoitzean, segurtasun-kodea eskatuko dizu. Telefonoa blokeatzeko aukera Automático gisa badago, SIM txartela aldatzen baduzu bakarrik eskatuko dizu segurtasun-kodea. Fabrikatik 0000 pasahitza du konfiguratuta. Telefonoaren pasahitza aldatzeko, ikus menuko Cambiar código - Código seguridad [3-4-5 menua] aukera. Pasahitz zuzena sartu ondoren, telefonoa erabil dezakezu itzaltzen duzun arte.

Deiak murriztea

3-4-3 menua

Deiak murrizteko aukerarekin, telefonon jasotzen diren eta egiten diren deiak murrizt ditzakezu. Horretarako, deiak murrizteko pasahitza behar duzu, eta operadoreak eman diezazuke.



- ▶ **Llam. enviadas.:** zerbitzu honek irteerako dei guztiak murrizten ditu.
- ▶ **Enviadas internacionales:** ezin da nazioarteko deirik egin.
- ▶ **Internacional si en itinerancia:** zerbitzu honek nazioarteko irteerako dei guztiak murrizten ditu, desplazamendu-egoeran (roaming) zaudenean norberaren sarera egindako deiak izan ezik.
- ▶ **Todas entran.:** ezin da deirik jaso.
- ▶ **Entrante en extranjero:** ezin da deirik jaso, telefonoa dagokion estatuko zerbitzu-eremutik kanpo dagoenean.
- ▶ **Cancelar todo:** Deiak murrizteko zerbitzu guztiak bertan behera uzten ditu.
- ▶ **Cambiar contraseña:** Deiak murrizteko zerbitzuaren pasahitza aldatzeko aukera ematen du.
- ❗ **Oharra** Deiak murrizteko funtzioa erabiltzeko, sare-pasahitz bat sartu behar duzu. Deiak murriztu arren, larrialdiko zenbaki batzuetara deitzeko aukera ematen dute sare batzuek.

Markaketa finkoa

3-4-4 menua

(SIM txartelaren arabera)

Telefono-zenbaki jakinetara egindako deiak murrizteko balio du, baldin eta SIM txartelak funtzio hori badu. Zenbaki horiek PIN2 kodearen bidez babesten dira.

Ondoko aukerak ditu:

- ▶ **Activar:** telefono-zenbaki jakin batzuetarako deiak murrizt ditzakezu.
- ▶ **Cancel.:** markaketa finkoko funtzioa desaktibatzen du.
- ▶ **Lista núm.:** markaketa finkoko zenbaki gisa gordetako zenbakien zerrenda ikus dezakezu.
- ❗ **Oharra** SIM txartel guztiek ez dute PIN2 kodea. SIM txartela horrelakoa bada, ezingo da erabili menu-aukera hori.



Kodeak aldatzea

3-4-5 menua

Sarbide-kodeak alda ditzakezu: Código PIN, Código PIN2, Código segur.

1. Segurtasun-kodea, PIN kodea edo PIN2 kodea aldatu nahi baduzu, sartu jatorrizko kodea eta sakatu [Aceptar].
2. Segurtasun-kode, PIN kode edo PIN2 kode berria idatzi eta egiaztatu.

❗ **Oharra** PIN: identifikazio-zenbaki pertsonala

Sarea

3-5 menua

Sare-konfigurazioa funtzioarekin adieraz dezakezu desplazamenduetan (estatuko eremutik kanpo) erabiliko den sarea automatikoki, eskuz edo lehenespenez hautatuko den.

❗ **Oharra** Zure sare lokala ez den beste sare bat hauta dezakezu, sare lokalarekin balio duen desplazamendu-zerbitzua kontratatu baduzu.

Sarea aukeratzea

3-5-1 menua

► **Automático:** modu automatikoa aukeratzen baduzu, telefonoak sare bat automatikoki bilatu eta hautatuko du. Automático aukera hautatu

ondoren, telefonoa “Automático” gisa konfiguratuta geratuko da, itzali eta piztu arren.

► **Manual:** telefonoak erabilgarri dituen sareen zerrenda bilatuko eta erakutsiko du. Ondoren, erabili nahi duzun sarea hauta dezakezu, sare horrek tokiko sare-operadorearekin desplazamendu-hitzarmena badu. Hautatutako sarera sartzetik ez baduzu, telefonoak beste bat hautatzeko aukera ematen du.

► **Preferidas:** gogoko sareen zerrenda ezar dezakezu, telefonoa sare horretan erregistratzen saia dadin, beste edozeinetan saiatu baino lehen. Zerrenda hori telefonoan aurrez definitutako sare ezagunen zerrendan dago.

Banda hautatzea

3-5-2 menua

EGSM/DCS

Sare-egoeraren arabera, EGSM/DCS hauta dezakezu.

PCS bakarrik

Sare-egoeraren arabera, Sólo PCS hauta dezakezu.



GPRS

3-6 menua

GPRS teknologiaren bidez (pakete bidezko irati-zerbitzu orokorra) telefonía mugikorraren sarearen bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko erabil daitezke telefonoak. GPRS datu-garraiatzaile bat da, eta Internetera eta hori bezalako datu-sareetara haririk gabe sartzeko aukera ematen du.

- GPRS teknologia erabili ahal izateko, GPRS zerbitzuan harpidetu behar da.
- GPRS zerbitzuaren erabilgarritasunari eta harpidetzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Conectar hautatzen baduzu eta GPRS onartzen duen sare batean bazaude, telefonoa GPRS sarean erregistratzen da eta mezu laburrak GPRS bidez bidaltzen dira. Gainera, azkarragoa da datu paketatuen konexio aktibo bat hastea, adibidez, irudiak dituzten mezuak bidaltzeko eta jasotzeko. Cuando sea necesario hautatzen baduzu, telefonoak GPRS konexio bat erabiliko du, bakarrik zerbitzu hori behar duen aplikazio edo ekintzaren bat abiarazten baduzu. GPRS konexioa behar ez denean ixten da.

- ❗ **Oharra** GPRSaren estaldurarik ez badago eta Automático hautatu baduzu, telefonoa aldizka konektatzen saiatuko da.

Memoriaren egoera

3-7 menua

Atal bakoitzean erabilitako memoriaren egoera ikusteko aukera ematen du.

Doikuntzak leheneratzea

3-8 menua

Fabrian aurrez definitutako balio guztiak berrezar ditzakezu. Funtzio hau aktibatu ahal izateko, segurtasun-kodea sartu behar duzu.

- ❗ **Oharra** Lehenespen gisa, segurtasun-kodea 0000 da.

Argazkiak egin daitezke telefonoak duen kamerarekin.

Argazkia egitea

4-1 menua

Sakatu  menu-tekla eta hautatu **Cámara > Hacer foto** edo sakatu  kamera-tekla deiak jasotzeko/egiteko moduan, kamera pizteko.

Argazkia atera baino lehen, balio hauek doi ditzakezu:



aurrebistaren aukera-menuaren barra

- 1. Zoom digitala** (): x1, x2, x3, x4
- 2. Tonua** (): kolorea, sepia, zuria eta beltza
- 3. Distira** (): +2, +1, 0, -1, -2

4. Tenporizadorea (): desaktibatuta, 3 s, 5 s.


5. Memoria (): memoriaren egoera bistaratzen du

Oharra Memoria beteta badago, "Memoria lлена" mezua bistaratuko da eta ezingo duzu argazkia gorde. Lekua egiteko, kendu argazki zaharrak **Photo Álbum** aukeratik.


6. Bereizmena (): VGA (640 x 480), QVGA (320 x 240), 160 x 120 (QQVGA), 48 x 48 (aurkibidea)

7. Irudi-kalitatea (): fina/normala/oinarritzkoa

1. Zuk nahi duzun aukera-menua hautatzeko, erabili ezkerrera/eskuinera nabigazio-teklak.
2. Hautatu balioa gora/behera nabigazio-teklak erabiliz.
3. Doikuntzak egitean, fokatu objektua eta sakatu OK. Irudia atzitzean, klik entzuten da eta menu-barra hau bistaratzen da.



- ❗ **Oharra** Bereizmena 48x48 (aurkibidea) bada, menu-barra hau bistaraten da.



Guardar automáticamente aukeran Sí hautatzen baduzu, atzitutako irudia automatikoki gordeko da aurreko menu-barra bistaratu gabe.

4. Irudia gordetzeko, zentratu "  " eta sakatu OK. Irudia gorde nahi ez baduzu, zentratu "  " eta sakatu OK.

Halaber, irudia MMS bidez bidal daiteke; horretarako, hautatu 

Multimedia-mezuak idazteko moduari buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus mezuen atala 54. orrialdean.

Argazki bat 48 x 48 (aurkibidea) bereizmenarekin egin ondoren, irudia zuzenean kontaktuetan gorde dezakezu; horretarako hautatu 

Jarraituak

4-2 menua

Elkarren segidako 9 argazki egin ditzakezu batera.

Argazki bat atera ondoren, ikusteko  ,  saka dezakezu edo gordetzeko 

- ❗ **Oharra** 320x240 bereizmena ezartzen baduzu, ezingo dituzu atera 6 argazki baino gehiago. 160x120 bereizmenarekin, 9 argazki atera ditzakezu.



Doikuntzak

4-3 menua

Automatikoki gordetzea

4-3-1 menua

Activado hautatzen baduzu, ateratzen dituzun argazkiak automatikoki gordetzen dira.

Albura ezabatzea

4-3-2 menua

Albura osorik ezaba dezakezu.

Mezu berria**5-1 menua****SMS berria****5-1-1 menua**

Zure telefonoak ahots-postontziko jakinarazpen-mezuak eta SMS mezuak (Short Message Service, mezu laburren zerbitzua) jasotzen ditu. Ahots-postontziaren mezuak eta SMS mezuak sare-zerbitzuak dira.

Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

 ikonoak adierazten du ahots-postontzian mezu bat duzula.  ikonoak adierazten du testu-mezu berri bat jaso duzula. Mezuen memoria beteta dagoenean, mezu bat bistaritzen da,  ikonoa aldatu egiten da  eta ezin dira mezu berriak jaso. Erabili **Bandeja entrada** menuko **Eliminar** aukera, mezuak ezabatzeko. Jaso gabe geratu diren SMS mezuak jaso ahal izango dituzu, mezuen memorian tokia egitean.

1. Idatzi mezua. Mezua idazteko moduei buruzko informazio gehiago dago 25-28. orrialdeetan (testua idaztea).

2. Testu-aukerak ezarri edota lettrari estilo jakinen bat aplikatu nahi badiozu, sakatu  [Opcs.].

Aukera hauek dituzu:

- **Enviar:** sartu zenbakia edo hautatu aurkibidean edo erabilitako azken zenbakien zerrendan. Mezu bat gehienez 6 telefono-zenbakitara bidal dezakezu aldi berean. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.]. Aukera hauek agertuko dira:

① Kontaktuak

② Azken zenbakiak

- **Guardar:** mezuak irteerako ontzian gordetzen dira.

- **Fuente:** letra-tamaina eta -estiloa ezartzen dira.



- **Color:** testuaren eta hondoaren kolorea hautatzeko aukera ematen dizu.
 - **Alineación:** mezuaren edukia **eskuinean, erdian** edo **ezkerrean** lerrotatzeko aukera ematen dizu.
 - **Agregar diccionario T9:** hitzak gehitzeko aukera ematen dizu. Menu hori bistaratzeko, beharrezkoa da edizio-modua Predictivo izatea.
 - **Idiomas T9:** hautatu testua sartzeko T9 moduaren hizkuntza. T9 idatzeko modua desaktibatzeke, hautatu 'T9 desactivado'.
 - **Salir:** mezu bat idazten ari zarela, Salir sakatzen baduzu, mezua amaitu eta Mensajes menura itzuliko zara. Idazten ari zinen mezua ez da gordeko.
3. Mezuari datuak atxikitzeke, sakatu eskuineko funtzio-tekla [Insertar], mezua idazten ari zaren bitartean.
- **Simbolo:** karaktere bereziak gehitzeko aukera ematen du.
 - **Imágenes:** Mis imágenes karpetan gordetako irudiak edota irudi lehenetsiak sartzea ahalbidetzen du.

Telefonoan aurrez konfiguratutako irudiak daude, eta beste toki batzuetatik jasotakoekin ordez daitezke.

- **Sonido:** soinuak/melodiak sartzeko aukera ematen dizu.
- **Plantillas SMS:** telefonoan ezarrita dauden txantiloiak erabiltzeko aukera ematen dizu.
- **Contactos:** mezuari telefono-zenbakiak gehi diezazkiokezu.
- **Tarjeta visita:** sinadura sar dezakezu.

MMS berria

5-1-2 menua

MMS batek testua, irudiak eta/edo soinua izan ditzake. Funtzio hau sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu baino ezin da erabili. Posta elektronikoko edo multimedia-mezu bateragarrien funtzioak eskaintzen dituzten gailuak bakarrik bidal eta jaso ditzakete multimedia-mezuak.

1. Idatzi testu-mezua. Eskuineko funtzio-tekla erabiliz, ikurrak, zenbakiak eta aurpegierak sar ditzakezu. Testu-mezua sartzean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Realizado].



2. Gehitu irudia, soinua edo bideoa. Gora/behera nabigatzeko tekla erabiliz beste funtzio batera joan zaitezke.

3. Ezkerreko funtzio-tekla [Opciones] erabiliz, diapositiba bat gehi dezakezu.

4. Sakatu [Opcs.] eskuineko funtzio-tekla aukera hauek erabiltzeko:

► **Enviar:** irudia duten mezuak bidal diezazkiekezu hainbat hartzaileri, lehentasuna ezar dezakezu eta baliozkotasun-aldia ere ezar dezakezu.

► **Previsualizar:** bidali nahi duzun MMSa bistaratzen du.

► **Guardar:** MMSa zirriborro edo txantilo gisa gordetzeko.

► **Añadir diapositiva:** uneko diapositibaren aurretik edo ondoren diapositiba bat eransteko aukera ematen dizu.

► **Mover a diapositiva:** aurreko edo hurrengo diapositibara joateko aukera ematen dizu.

► **Borrar diapositiva:** uneko diapositibak ezabatzeko aukera ematen dizu.

► **Formato diapositiva**

- **Establecer temporizador:** diapositibetarako, testurako, irudietarako

eta soinuetarako tenporizadorea ezartzeko aukera ematen dizu.

- **Cambiar texto e imagen:** argazki baten posizioa eta mezuaren testua aldatzeko aukera ematen dizu.

► **Eliminar contenido:** diapositibako irudiak edo soinuak ezabatzeko aukera ematen dizu.

► **Agregar diccionario T9:** hitzak gehitzeko aukera ematen dizu. Menu hori bistaratuko da edizio-modua Predictivo bada.

► **Idiomas T9:** T9 testu prediktiboaren hizkuntza alda dezakezu.

► **Salir:** mezu bat idazten ari zarela, Salir sakatzen baduzu, mezua amaitu eta Mensajes menura itzuliko zara. Idazten ari zinen mezua ez da gordeko.

5. Sakatu [Insertar] eskuineko funtzio-tekla. Ikurrak, argazkiak, irudiak, soinua, testu-txantilioiak, kontaktuak, bisita-txartela sartu eta ahotsa graba dezakezu. Gainera, mezua idatz dezakezu aurkibidean bilatuta.



Sarrera

5-2 menua

Jasotzen dituzun mezuak sarrerako postontzian gordeko dira. Alerta bat jasoko duzu mezu berri bat jasotzen duzun bakoitzean. Sarrerako ontzian, mezuak taulako ikono hauekin identifikatzen dira.

Jasotzen dituzun mezuak sarrerako postontzian gordeko dira. Sarrerako ontzian, mezuak ikono hauekin identifikatzen dira.

‘No hay espacio para el mensaje’ mezua azaltzen bada, tokia egin beharko duzu, mezuak, multimedia-fitxategiak eta aplikazioak ezabatuta.

Ikonoa	Deskribapena
	SIM mezua irakurrita
	Irakurri gabeko SIM mezua
	Mezua irakurrita
	Irakurri gabeko mezua

❗ **Oharra** Telefonoak bereizi egiten ditu SIM mezuak gainerakoetatik. SIM mezuak dira SIM txartelaren memorian gordetzen direnak.

Jasotako mezu batean ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.] sakatzen baduzu, aukera hauek izango dituzu:

- ▶ **Ver:** jasotako mezuak ikus ditzakezu.
- ▶ **Responder:** jasotako mezuari erantzuteko balio du.
- ▶ **Reenviar:** jasotako mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- ▶ **Devolver llamada:** mezua bidali duen pertsonaren telefonora deitzeko balio du.
- ▶ **Eliminar:** sarrerako postontzian hautatutako mezuak ezabatzen ditu.
- ▶ **Información:** jasotako mezuei buruzko informazioa ikusteko aukera ematen du.
- ▶ **Borrar todos:** karpetako mezu guztiak ezabatzen ditu.

Ikonoa	Deskribapena
	Irakurritako MMSa
	Irakurri gabeko MMSa
	Multimedia-mezua jakinarazpenarekin

- **Responder:** igorleari erantzuteko aukera ematen dizu.
- **Responder a todos:** MMSaren hartzaile guztiei erantzuteko balio du.
- **Reenviar:** mezua beste pertsona bati bidaltzeko balio du.
- **Devolver llamada:** bidaltzaileari deia itzultzeko aukera ematen dizu.
- **Eliminar:** mezua ezabatzeko balio du.
- **Obtener:** mezutik zenbakiak, irudiak, soinuak, mezu elektronikoak eta URLa erazteko balio du. Karpetan, telefono-aurkibidean edo [Opciones] markagailuetan gordeko dira.
- **Información:** jasotako mezuei, bidaltzailearen helbideari, gaiari (irudiak dituzten mezuetan), mezuaren data eta orduari, mezu-motari eta mezuaren tamainari buruzko informazioa ikusteko aukera ematen dizu.

Zirriborroa

5-3 menua

Menu honetan zirriborro gisa gordetako mezuen zerrenda ikus daiteke. Ikus zerrenda gora/behera nabigazio-teklak erabilita. Ondoko aukerak ditu:

- ▶ **Ver:** aukeratutako mezua bistartzen du.
- ▶ **Editar:** aukeratutako mezua aldatzen du.
- ▶ **Borrar:** aukeratutako mezua ezabatzen du.
- ▶ **Información:** mezuaren informazioa bistartzen du.
- ▶ **Borrar todos:** karpetako mezu guztiak ezabatzen ditu.

Irteera

5-4 menua

Bidalitako mezuen zerrenda eta horien edukia ikus daiteke, baita transmisioa egokia izan den ere.

Aukera hauek ditu:

Ikonoa	Deskribapena
	SIM mezua bidalita
	Mezua bidalita

Mezularitza

- **Ver:** aukeratutako mezua bistaritzen du.
- **Reenviar:** irekita dagoen mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- **Borrar:** irteerako postontzian hautatutako mezuak ezabatzen ditu.
- **Información:** bidalitako mezuei buruzko informazioa bistaritzen du.
- **Borrar todos:** Enviados karpeta mezu guztiak ezabatzen ditu.

Erabili bidalitako mezuak ikusteko. Bidalitako mezuen entregatze-egoera ikus dezakezu.

Ikonoa	Deskribapena
	Bidalita
	Bidali gabeko SMSa
	Berretsi da SMSa bidali izana
	Bidalitako MMSa
	Bidali gabeko MMSa
	Berretsi da MMSa bidali izana

- **Eliminar:** mezua ezabatzen du.
- **Reenviar:** irekita dagoen mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- **Información:** jasotako mezuei, bidaltzailearen helbideari, gaiari (irudiak dituzten mezuetan), mezuaren data eta orduari, mezu-motari eta mezuaren tamainari buruzko informazioa bistaritzen du.

Ahots-postontzia entzutea 5-5 menua

Menu honekin bizkor sar zaitezke zure ahots-postontzira (sarean baldin badago). Funtzio hau erabili baino lehen, sare-operadoreak ahots-zerbitzariarentzat emandako zenbakia sartu behar duzu.

Ahots-mezu bat iristen denean,  dagokion ikurra pantailan agertuko da. Telefonoa dagokion moduan konfiguratzeko, egiaztatu itzazu zerbitzuaren xehetasunak zure zerbitzu-hornitzailearekin.



Informazio-mezuak

5-6 menua

Informazio-zerbitzuaren mezuak telefono mugikorren erabiltzaileei sareak bidaltzen dizkien testu-mezuak dira. Hainbat gairi buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, hala nola eguraldiaren iragarpena, zirkulazioa, taxiak, botikak eta burtsa. Informazio-mota bakoitzari zenbaki bat dagokio eta sare-operadoreak emango dizu zenbakia. Informazio-zerbitzuaren mezu bat jasotzen duzunean, mezu bat jaso duzula adieraziko dizun mezu bat agertuko da; bestela, zuzenean azalduko da informazio-zerbitzuaren mezua. Deiak jasotzeko/egiteko moduan, aukera hauek daude informazio-zerbitzuen mezuak bistaratzeko.

Irakurtzea

5-6-1 menua

Informazio-zerbitzuko mezu bat jaso, eta, hura ikusteko, **Leer** sakatzen baduzu, mezua pantailan azalduko da.

Gaia

5-6-2 menua

Gai berriak sortzeko, hautatu Añadir nuevo. Lehendik gaiak baldin badaude, desaktibatu, editatu edo ezaba ditzakezu; horretarako, erabili ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.].

Txantiloia

5-7 menua

Aurez definitutako mezuak daude zerrendan. Txantiloimezuak ikusi eta edita daitezke edo mezu berriak sor daitezke. Bi txantiloimota daude: testua eta multimedia.

SMS

5-7-1 menua

- Por favor llámame
- Llego tarde. Llegaré a las...
- ¿Dónde estás ahora?
- Estoy de camino
- Muy urgente. llámame
- Te quiero.

Aukera hauek ditu:



► **Editar:** hautatutako txantiloia edita daiteke.

► **Escribir**

- **Nuevo SMS:** erabili aukera hau hautatutako txantiloiz mezua SMS bidez bidaltzeko.

- **Nuevo MMS:** erabili aukera hau hautatutako txantiloiz mezua MMS bidez bidaltzeko.

Añadir nueva: erabili aukera hau txantiloiz berri bat sortzeko.

Borrar: txantiloia ezabatzeko balio du.

MMS

5-7-2 menua

► **Vista previa:** MMSa zirriborro-formatuan bistaratzen da.

► **Guardar:** MMSa zirriborro edo txantiloiz gisa gordetzeko.

► **Añadir diapositiva:** uneko diapositibaren aurretik edo ondoren diapositiba bat eransteko aukera ematen dizu.

► **Mover a diapositiva:** aurreko edo hurrengo diapositibara joateko aukera ematen dizu.

► **Eliminar diapositiva:** hautatutako diapositiba ezabatzen du.

► **Formato diapositiva:** diapositibaren edo testuaren aurkezpenaren iraupena ezartzen du, edo mezua edukia eskuinean, ezkerrean, goian edo behean lerrotzeko du.

► **Agregar diccionario T9:** hitzak gehitzeko aukera ematen dizu. Menu hori bistaratuko da edizio-modua Predictivo bada.

► **Idiomas T9:** T9 idazteko modua hautatzen du.

► **Salir:** menuatik irteteko.

Doikuntzak

5-8 menua

SMS

5-8-1 menua

► **Tipos de mensajes:**

Texto, Voz, Fax, Búsq. nac., X.400, E-mail, ERMES

Berez, Texto motako mezua daude ezarrita, baina beste formatuak aukera daitezke. Funtzio horren erabilgarritasunari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.



► **Período de validez:** sareko zerbitzu honen bidez, testu-mezuak mezuen zentroan gordeko diren aldia ezarri ahalko duzu.

► **Acuse de recibo:** aukera honetan Sí sakatzen baduzu, mezua bidali den egiaztatu ahalko duzu.

► **Responder mediante el mismo centro de servicios:**
mezu bat bidaltzen denean, hartzaileek aukera dute erantzuteko eta erantzunaren kostua telefono-fakturan zorduntzeko.

► **Centro SMS:** testu-mezua bidali nahi baduzu, menu honen bitartez SMS mezuen zentroaren helbidea jaso dezakezu.

MMS

5-8-2 menua

► **Prioridad:** mezua bidal dezakezu lehentasun-maila definitu ondoren: handia, normala eta txikia.

► **Período de validez:** sareko zerbitzu honen bidez, testu-mezuak mezuen zentroan gordeko diren aldia ezarri ahalko duzu.

► **Acuse de recibo:** menu-aukera honetan Sí'd sakatzen baduzu, mezua bidali den egiaztatu ahalko duzu.

► Recuper. automática

Activado: mezuak jaso bezain laster deskargatzen dira automatikoki.

Desactivado: deskargatu nahi den mezua berretsi behar da.

Sólo red local: etxeko sarean, deskarga automatikoa aktiba daiteke. Desplazamendu-egoeran baldin bazaude, deskarga automatikoa desaktibatuta geratuko da.

► **Cuentas:** Zerbitzaritik MMS bat deskargatu ahal izateko, CSD edo GPRS datuen konexio bat konfiguratu behar da. Irudiak dituzten mezuen zerbitzaria hautatzen baduzu, irudiak dituzten mezuen zerbitzariaren URL helbidea ezar dezakezu.

- **Inicio:** Menu horrekin MMS zentrorra (MMSC) konekta zaitezke.

- Portadora

• Datos

• GPRS



- **Ajustes de datos:** Datos garraiatzaile edo zerbitzu gisa hautatzen baduzu bakarrik bistaratzen da.

Dirección IP

Marcar núm.: sartu WAParen lotura-estekara sartzeko markatu nahi duzun telefono-zenbakia.

Id. usuario

Contraseña

Tipo llamada: aukeratu datuen dei-mota, analogikoa edo digitala (ISDN).

Vel. llamada: datu-konexioaren abiadura: 9600

Lím. tiempo: zain egoteko denbora-tarte bat ezarri ondoren, nabigatzeko WAP zerbitzua ez da erabilgarri egongo daturik sartzen edo transferitzen ez bada.

- **Ajustes GPRS:** zerbitzuaren doikuntzak GPRS zerbitzu garraiatzaile gisa hautatuta badago bakarrik erabili ahal izango dituzu.

Dirección IP

APN: sartu GPRSaren APN (sarbide-puntuaren izena).

Id. usuario

Contraseña

- Ajustes proxy

Proxy: Akt./Desakt.

Dirección IP: proxyaren sarrerako IP helbidea.

Puerto: proxyaren sarrerako ataka-zenbakia.

- **Ajustes DNS:** sartu DNS primarioa eta sekundarioa, sare-operadoreak eskatzen badizu.

► Tipos de mensajes permitidos

Personal: mezu pertsonala.

Publicidad: mezu komertzialak.

Información: beharrezko informazioa.

Ahots-postontziaren zentroa 5-8-3 menua

Ahots-mezuak jaso ditzakezu, zerbitzu-hornitzaileak funtzio hori onartzen badu. Ahots-mezu bat iristen denean, dagokion ikurra pantailan agertuko da.



Telefonoa dagokion moduan konfiguratzeko, egiazta itzazu zerbitzuaren xehetasunak zure zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Luze sakatu  tekla deia egiteko/jasotzeko egoeran.

2. Bigarren mailako menu hauek ikus ditzakezu.

► **Inicio:** ahots-postontziko mezuak entzuteko, hautatu aukera hau.

► **Itinerancia:** atzerrian bazaude ere, ahots-postontziko mezuak entzun ditzakezu, zerbitzu hau onartzen bada.

Informazio-mezuak

5-8-4 menua

► Recibir

-**Si:** menu hau hautatzen baduzu, telefonoak informazio-zerbitzuko mezuak jasoko ditu.

-**No:** menu hau hautatzen baduzu, telefonoak ez ditu jasoko informazio-zerbitzuko mezuak.

► Alerta

- **Si:** informazio-zerbitzuko mezuak jasotzean, telefonoak soinu txiki bat egingo du.

- **No:** telefonoak ez du soinurik egingo informazio-zerbitzuko mezuak jasotzen dituenean.

► **Idiomas:** [Activado/ Desactivado] sakatuta, nahi duzun hizkuntza hauta dezakezu. Jarraian, informazio-zerbitzuko mezua hautatutako hizkuntzan azalduko da.

Zerbitzu-mezuak

5-8-5 menua

Mezu-mota hori jasotzeko edo ez jasotzeko aukera ematen du.

**Amenarekin nabigatzea****6-1 menua****Jokoen katalogoa****6-2 menua****Musika-katalogoa****6-3 menua****Amen@mail posta****6-4 menua****Txata****6-5 menua****Amena beti eguneratuta****6-6 menua****Favorito****6-7 menua**

Menu horren bidez, gogoko web orrien URLa gorde daiteke, edozein unetan horietan zuzenean sartzeko. Telefonoak aurrez instalatutako markagailu batzuk ditu. Aurrez zehaztutako markagailu horiek ezin dira ezabatu.

Markagailua sortzea

1. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla  [Opciones].
2. Hautatu Añadir nuevo eta sakatu OK tekla.

3. Idatzi URLa eta nahi duzun izenburua eta sakatu OK tekla.

Iradokizuna Erabili  eta  teklak sinboloak sartzeko. "." sartzeko, sakatu

Nahi duzun markagailua hautatu ondoren, aukera hauek dituzu.

► **Conectar:** hautatutako markagailura konektatzen zara.

► **Añadir nuevo:** markagailu berria sor dezakezu.

► **Editar:** hautatutako markagailuaren URLa edo izenburua edita ditzakezu.

► **Borrar:** hautatutako markagailua ezabatzen du.

► **Borrar todas:** markagailu guztiak ezabatzen ditu.

URLra joatea**6-8 menua**

Zuzenean gunera konekta zaitezke URL helbide zehatza sartuta; ondoren, sakatu OK tekla.



Doikuntzak

6-9 menua

Cuenta

Amena WAP

Amena WAP CSD

Profil bakoitzak azpimenu hauek ditu:

► **Activar:** aukeratutako profila aktibatzen du.

► **Configuración:** hautatutako profilaren WAP doikuntzak edita eta alda ditzakezu.

- **Inicio:** doikuntza horren bidez, orri nagusi gisa erabili nahi duzun gunearen URL helbidea idatz dezakezu. Ez da nahitaez "http://" zatia idatzi behar URL helbidearen hasieran; izan ere, WAP arakatzailerak automatikoki eransten dio.

- **Portadora:** garraiatzailearen datu-zerbitzu ezar dezakezu.

1 Datos

2GPRS

- **Ajustes de datos:** Datos garraiatzaile edo zerbitzu gisa hautatzen baduzu bakarrik bistaratzen da.

Marcar número: sartu WAParen lotura-estekara sartzeko markatu nahi duzun telefono-zenbakia.

ID usuario: sarera telefono bidez sartzeko zerbitzuan erabiltzaileak duen identitatea (eta EZ WAParen lotura-estekarena).

Contraseña: sarera telefono bidez sartzeko zerbitzariak eskatutako pasahitza (eta ez WAParen lotura-estekarena), identifikatzeko.

Tipo llamada: hautatu datu-dei mota bat: Analogue (analogikoa) edo Digital (RDSI).

Velocidad llamada: datu-konexioaren abiadura: 9600.

Límite tiempo: zain egoteko aldi finko bat ezarri behar duzu. Ezarri ondoren, nabigatzeko WAP zerbitzua ez da erabilgarri egongo daturik sartzen edo transferitzen ez bada.



- Ajustes GPRS: zerbitzuaren doikuntzak GPRS zerbitzu garraiatzaile gisa hautatuta badago bakarrik erabili ahal izango dituzu.

APN: sartu GPRSren APNa.

ID usuario: erabiltzailearen identifikazioa APN zerbitzarian.

Contraseña: APN zerbitzariak eskatutako pasahitza.

- Config. proxy

Proxy: Aktibatuta/Desaktibatuta

Dirección IP: sartu nahi duzun proxy zerbitzariaren IP helbidea.

Número de puerto: idatzi proxy ataka.

- Ajustes DNS

Servidor primario: idatzi erabili nahi duzun DNS zerbitzari nagusiaren IP helbidea.

Servidor secundario: idatzi erabili nahi duzun bigarren mailako DNS zerbitzariaren IP helbidea.

► **Añadir nuevo:** profil berria eransteko aukera ematen du.

Permitir caché

Konexio-saiakera cache memoriaren bidez egingo den edo ez ezartzeko aukera ematen du.

Permitir cookies

Cookieak erabili diren edo ez egiaztatzen du.

Borrar Caché

Cache memorian gordetako testu guztiak ezabatu.

Cancelar Cookies

Gordetako eduki guztiak ezabatzen ditu.

Seguridad

Erabilgarri dauden ziurtagirien zerrenda bistaratzen da aukera honetan.

► **Autoridad:** telefonoan gordetako baimen-ziurtagirien zerrenda bistaratzeko aukera ematen du.

► **Personal:** telefonoan gordetako ziurtagiri pertsonalen zerrenda bistaratzeko aukera ematen du.



Profilak leheneratzea

Aurrez definitutako konfiguraziora lehenera ditzakezu profilak.

SIM zerbitzua

6-10 menua

Menu hau SIM txartelaren eta sareko zerbitzuen araberakoa da.



Profilen menuan telefonoaren tonuak doitu eta pertsonaliza ditzakezu, egoeren, inguruneen edo erabiltzaile-taldeen arabera.

Aurrez zehaztutako bost profil daude: **Sólo vibracion**, **Silencio**, **Fuerte**, **Auriculares** eta **Normal**. Profil guztiak pertsonaliza daitezke (bibrazioari eta isilik moduari dagozkion menuak izan ezik).

Sakatu  menu-tekla eta hautatu **Perfiles** nabigazio-teklekin.

Aktibatzea

7-X-1 menua

1. Profilen zerrenda azaltzen da.
2. Joan aktibatu nahi duzun profilerara eta sakatu [OK] ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla.
3. Gero, hautatu **Habilitar**.

Pertsonalizatze

7-X-2 menua

Profilen zerrendan zaudela, nahi duzun profilerara joan. [OK] ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla sakatu ondoren, aukeratu **Personalizar**. Profila konfiguratzeko menua irekiko da, eta aukera hauek pertsonaliza daitezke.

- ▶ **Alerta llamada:** sarrerako deien alerta-mota ezartzen du.
- ▶ **Tono:** zerrendan nahi duzun tonua hauta dezakezu. Ikus zerrenda gora/behera nabigazio-teklak erabiltza. Txirrina entzun dezakezu, hautaketa egin baino lehen.
- ▶ **Vol. tono:** dei-tonuaren bolumena ezartzen du.
- ▶ **Alerta mens.:** mezuen alerta-mota ezartzen du.
- ▶ **Tono de mensaje:** mezuen tonua hautatzeko balio du.
- ▶ **Tono teclado:** teklatuaren tonua hautatzen du.
- ▶ **Volumen teclado:** teklatuaren tonuaren bolumena ezartzen du.
- ▶ **Tono de tapa:** tapa irekitzean entzungo den tonua ezartzeko balio du.
- ▶ **Vol. efectos sonido:** soinu-efektuen bolumena ezartzen du.
- ▶ **Vol enc y apag:** telefonoa piztean edo itzaltzean entzungo den tonuaren bolumena ezartzen du.



Izendatzea

7-X-3 menua

Profil baten izena alda dezakezu (nahi duzun izena eslezi diezaiokezu), S6f3lo vibraci6f3n, Silencio eta Auriculares profiletan izan ezik —horiek ezin dira aldatu—.

1. Profil baten izena aldatzeko, joan profil-zerrendan aldatu nahi duzun profileraino eta, ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla sakatutakoan, hautatu Cambiar nombre.
2. Idatzi izena eta sakatu OK tekla edo [Guardar] ezkerreko funtzio-tekla.



Operadoreak onartzen badu, jokoak deskargatzeko guneetara konekta zaitezke Internet móf3vil erabiliz, WAP edo Java esploratzailearekin. Egiaztatu aukera hori erabil daitekeen. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu hornitzaileari.

Argazkiak

8-1 menua

Argazkiak egin daitezke telefonoak duen kamerarekin.

- ▶ **Vista múltiple:** pantailan gehienez 6 argazki bistara daitezke.
- ▶ **Nuevo MMS:** MMS multimedia-mezen zerbitzuaren bidez argazkiak bidaltzeko aukera ematen du. Fitxategiak gehienez 100 kb izan ditzake.
- ▶ **Como tapiz:** argazki bat horma-irudi gisa ezartzeko balio du.
- ▶ **Presentación:** argazkiak diapositiben aurkezpen automatiko gisa ikusteko balio du.
- ▶ **Renombrar:** argazkiaren izenburua editatzeko aukera ematen du.

- ▶ **Borrar:** argazki bat ezabatzeko balio du.

- ▶ **Información:** izenburuari, tamainari, datari eta behar izan duen denborari buruzko informazioa ikusteko balio du.

- ▶ **Protección:** irudia blokeatu daiteke erroreak ezabatzeko.

Irudiak

8-2 menua

Irudiak mezen bidez (MMS) bidal daitezke, baita horma-paper gisa ezarri ere.

Soinuak

8-3 menua

Deskargatutako doinuak gorde, mezu batean erantsi edo dei-tonu gisa ezar ditzakezu.

Jokoak eta aplikazioak

8-4 menua

Fabrian ezarritako jokoak daude telefonoan. Joko horiek ez dira saretik deskargatzen direnak, horiekin jolasean aritzeko konektatuta egon behar baituzu..

Oharra Jokoa deskargatu ondoren gordetzeko, sakatu 'OK' (OK) eta telefonoan gordeta geratuko da.



Nire jokoak eta beste zenbait 8-4-1 menua

- **Juegos por defecto:** menu honetan, telefonoan instalatutako Java aplikazioak administratzen dira. Deskargatutako aplikazioak exekuta edo ezaba ditzakezu, edo konexio-aukerak ezarri. Deskargatutako aplikazioak karpetatant antolatzen dira.

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla  [Selec.], aukeratutako karpeta irekitzeko edo hautatutako midlet-a abiarazteko.

Karpeta hautatutakoan, sakatu [Opciones] eta azpimenu hau bistaratuko da:

- **Abrir:** gordeta dauden jokoak ikus daitezke.
- **Nueva carpeta:** karpeta berri bat sor dezakezu.

Kontuak 8-4-2 menua

Menu honek Interneteko menuaren konfigurazio bera du. Gainera, aplikazio berriak deskargatzeko, WAP konexioa behar da.

Irudiak 8-5 menua

Sare-zerbitzua erabiliz telefonoan irudi gehiago deskarga ditzakezu.

Doinuak 8-6 menua

Sare-zerbitzua erabiliz telefonoan tonu gehiago deskarga ditzakezu.

Jokoak 8-7 menua

Sare-zerbitzua erabiliz telefonoan joko gehiago deskarga ditzakezu.



Java(TM) Sun Microsystems-ek garatutako teknologia da. Netscape edo MS Internet Explorer arakatzailer estandarrekin Java azpiprograma deskargatuko zenukeen bezala, Java MIDlet deskarga dezakezu WAPerako, telefonoa aktibatuta duzula. Zerbitzu-hornitzailearen arabera, Javan oinarritutako programa guztiak (adibidez, Java jokoak) telefonora deskarga daitezke, eta bertan exekutatu. Deskargatu ondoren, Java programa jokoen menuan bistara daiteke, baita Java hauta, exekuta edo ezaba daitezkeen edozein menutan ere. Telefonoan gordetako Java programaren artxiboak .JAD eta .JAR formatua dute.

Oharra JAR artxiboa Java programaren formatu konprimitua da; era berean, JAD artxiboa deskripzio-artxiboa da, informazio zehatza duena. Saretik, deskargatu aurretik, JAD artxiboaren deskribapen zehatz guztia ikus daiteke.

Erne J2MEn (Java 2 Micro Edition) oinarritutako programak telefono-ingurunean bakarrik exekuta daitezke. J2SEn (Java 2 Standard Edition) oinarritutako programak PCaren ingurunean bakarrik exekuta daitezke.

Aukerak Java aplikazio batzuetarako datu-konexioa ezarri behar da. Hautatu aukera hau konexio-aukerak ezartzeko.

Sakatu  menu-tekla eta hautatu Má'e1s nabigazio-teklekin.

Antolatzailea

9-1

Antolatzailea

9-1-1 menua

Menu honetara sartzean egutegia azaltzen da. Hila eta urtea pantailaren goiko aldean bistaratzen dira. Data Ajustes menutik aldatzen baduzu, egutegia automatikoki eguneratuko da. Eguneko data laranja azalduko da nabarmenduta. Egutegian, beheko aldean barra bat azaltzen bada, egun horrek ohar edo sarrera bat duela esan nahi du, eta, egun horretan ipintzean ikur bat bistaratuko da pantailaren eskuineko beheko aldean. Gainera, telefonoak alarma-tonua egingo du oharrari funtzio hori esleitzen badiotzu.

Eguna, hila eta urtea aldatzeko:

Tekla	Deskribapena
 	Urtea
 	Hila
 	Astea
 	Eguna

Plangintza moduan, sakatu  [Opciones] ezkerreko funtzio-tekla eta egin urrats hauek:

- **Añadir nuevo:** hautatutako egunerako plan berri bat gehitzeko aukera ematen du. Idatzi gaia eta, gero, sakatu  [Aceptar] ezkerreko funtzio-tekla, eta aktibatu alarma nahi baduzu.
- **Ver:** hautatutako eguneko plan eta ohar guztiak ikus daitezke. Erabili gora eta behera joateko geziak oharren zerrendan batetik bestera mugitzeko. Oharrari alarma esleitzen bazaio, alarmaren ikonoa bistaratuko da. Oharra xehetasunekin ikusi nahi baduzu, sakatu [Aceptar.] ezkerreko funtzio-tekla, eta sakatu [Opcs.] oharra ezabatu edo editatzeko.



- **Ver todas:** plan osoa kontsulta dezakezu.
- **Borrar último:** jakinarazitako egutegiko azken sarrera ezaba dezakezu.
- **Borrar todas:** ohar guztiak kentzeko aukera ematen du.

Memo

9-1-2 menua

1. Oharra hautatzeko, sakatu  [Aceptar] ezkerreko funtzio-tekla eta, nahi baduzu, aktibatu alarma.
 2. Hutsa badago, gehitu beste bat  [Añadir] ezkerreko funtzio-tekla sakatuta.
 3. Sartu oharra eta gero sakatu  [Aceptar].
- ❗ **Oharra** Testua sartzeko modua aldatu nahi baduzu, sakatu  tekla.

Alarma

9-2 menua

Gehienez 5 alarma aktiba ditzakezu, telefonoak ordu jakin batean jo dezan. Hautatu aktibatu nahi duzun alarma eta sartu datu hauek:

1.  Aktibatu/desaktibatu alarma: hautatu Activado ezkerreko/eskuinera nabigazio-tekla erabiliz. Alarma-funtzioa desaktibatzeke, sakatu Desactivado.

2.  Alarma-ordua: idatzi alarma-ordua, zenbakizko teklak erabiliz.
3.  Errepikatzea: hautatu errepikatzeke maiztasuna: Una vez, Lun-Vie, Lun-Sáb edo Cada día. Horretarako, erabili eskuinera/ezkerreko nabigazio-tekla.
4.  Alarmaren melodia: alarmarentzat hautatu nahi duzun melodia; horretarako, erabili gora/behera nabigazio-tekla.
5. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Aceptar].
6. Alarmaren izena edita dezakezu. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Aceptar] izena sartu ondoren.

Alarma-funtzio bat aktibatuta dagoenean,  bistarutzen da deiak jasotzeko/egiteko moduan.

Alarma-ordua iristean, alarmaren doinua entzuten da.

- Alarma desaktibatzeke, sakatu eskuineko funtzio-tekla [Salir].

Kalkulagailua

9-3 menua

Funtzio honekin, telefonoa kalkulagailu gisa erabil dezakezu. Kalkulagailuak oinarritzko funtzio aritmetikoak egin ditzake:



batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa (zenbakiek gehienez bi hamartar izan ditzakete).

Kalkulagailuaren erabilera

1. Idatzi lehen zenbakia zenbaki-teklekin.
2. Sakatu dagokion nabigazio-tekla funtzio matematikoa hautatzeko.
- ❗ **Oharra** Edozein akats kendu eta pantaila ezabatzeko, sakatu  tekla.
 tekla sakatuta, hamartarren koma sar dezakezu.
Zeinu negatiboa sartzeko, sakatu  tekla.
3. Emaizta kalkulatzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Result] edo OK.
4. Kalkulua egin ondoren, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Rest.] hasierako egoerara itzultzeko.

Munduko orduak

9-4 menua

GMT (Greenwich-eko meridianoaren ordua) ordu-eremuaren eta munduko hiri nagusien ordua kontsulta dezakezu edozein unetan. Horretarako, ezkerreko/eskuineko nabigazio-teklak erabili behar dituzu.

Pantailan, hiriaren izena eta uneko ordua eta data agertzen dira.

Zuri dagokizun ordu-eremua hautatzeko, egin urrats hauek:

1. Hautatu  ordu-eremuari dagokion hiria,  nabigazio-teklak behin edo gehiagotan sakatuta.
2. Deiak jasotzeko/egiteko moduan bistartzen den orduaren ordeztatuak jarri nahi baduzu, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Set]. Gero, hautatu Ajustar.

- ❗ **Oharra** Sarearen egoerak eragina izan dezake hiri bakoitzaren ordu-eremuaren doikuntzan, Hora mundial menuan.

Unitate-bihurgailua

9-5 menua

Hainbat neurri unitate batetik bestera alda daitezke.

Lau neurri-mota daude: luzera, azalera, pisua eta bolumena.

1. Lau neurri horietako bat hautatzeko, sakatu [Unidad] tekla.



- Joan jatorrizko unitatera, beherako nabigazio-tekla sakatuta.
- Hautatu bihurtu nahi duzun unitatea, ezkerreko/eskuineko nabigazio-teklak sakatuta.
- Joan bihureta-unitatearen atalera, beherako nabigazio-tekla sakatuta.
- Hautatu zein unitatera bihurtu nahi duzun, ezkerreko/eskuineko nabigazio-teklak sakatuta.
- Sakatu zenbakiak zenbakien teklak erabilia. Automatikoki bihurtuko da unitatea.

❗ **Oharra**  tekla sakatuta, hamartarren puntua sar dezakezu.

Grabagailua

9-6 menua

Ohar bat graba dezakezu. 20 segundoko 10 ohar graba ditzakezu gehienez.

Grabatutako oharra erreproduzitu edo ezabatzeko, erabili ezkerreko funtzio-tekla [Opción].

❗ **Oharra** Modu inaktiboan, zuzenean Grabador de voz menura sartzeko, sakatu beherako nabigazio-tekla.

Zerrenda ikustea

Grabatutako ahots-oharrak erreproduzitu (Reproducir) edo ezabatzeko (Eliminar) aukera duzu.

Grabatzea

- Grabador de voz menuan, hautatu Grabar.
- Grabazioa hasitakoan, Grabando mezua eta amaitzeko falta den denbora bistaratzen dira.
- Grabazioa amaitzean, sakatu [Guard.] ezkerreko funtzio-tekla.

❗ **Oharra** Ohar-posizio guztiak beteta badaude, ohar zaharretako bat ezabatu behar duzu berria gorde baino lehen.

► **Reproducción:** grabatutako ohar guztiak erreproduzi daitezke, berrienetik hasita. Pantailan oharra grabatutako eguna eta ordua bistaratzen dira.

► **Enviar por MMS:** ahots-oharra MMS batean bidal dezakezu.

► **Borrar:** ohar jakin bat ezaba dezakezu.

► **Borrar todos:** ohar guztiak ezabatzeko aukera ematen du. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Sí], berresteko.

Begiratu ea telefonoan detektatutako arazoa hemen azaltzen den, zerbitzu teknikora edo teknikari espezializatu batengana eraman baino lehen.

G Nola ikus dezaket irteerako, sarrerako eta galdutako deien zerrenda?

E Sakatu 

G Nola ezaba dezaket deien historia osorik?

E Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero,



G Nola ikus ditzaket memorian gordetako zenbaki guztiak? 

E Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero,

G Ezin dut  pantailatik kendu.

E Egiartzatu estaldura dagoen.  ikusten segitzen baduzu, itzali mugikorra eta itxaron bi minutu, berriz piztu baino lehen.

Berdin segitzen badu, joan beste toki batera eta egiartzatu berriro.

G Konexioa ahula da edo ezin da entzun eremu batzuetan.

E Eremuaren arabera, asko alda daiteke seinalearen indarra. Saiatu tokiz aldatzen. Sarean trafiko handia badago, konexio-gaitasunean edo deiaren egonkortasunean eragin dezake.

G Konexioa ahula da, konektatzea lortzen duenean ere.

E Eremuaren arabera, asko alda daiteke seinalearen indarra. Saiatu tokiz aldatzen. Sarean trafiko handia badago, konexio-gaitasunean edo deiaren egonkortasunean eragin dezake.



- G** LCD pantaila ez da pizten.
- E** Atera eta ordeztu bateria, eta piztu mugikorra. Telefonoak piztu gabe segitzen badu, kargatu bateria eta saiatu berriro.
- G** Oihartzuna entzuten da telefono jakin batekin eremu jakin batean konektatzean.
- E** Oihartzunaren fenomenoak deitzen zaio horri. Bolumena altuegia denean edo beste aldeko gailuaren ezaugarri jakin batzuegatik (truke telefoniko erdielektronikoa) gertatzen da hori.
- G** Ez da txirrina entzuten, edo argiak edo LCD pantailak dir-dir besterik ez du egiten.
- E** Telefonoa "Vibración" edo "Silencio" gisa konfiguratu da profilen menuan. Hautatu "Normal" edo "Fuerte".
- G** Telefonoak gero eta gutxiago irauten du deiak egiteko/jasotzeko moduan.
- E** Bateriek bizitza mugatua dute. Bateria ordeztu egin behar da erositakoan irauten zuen denboraren erdia irauten hasten denean. Erabili bakarrik baimendutako ordeztu piezak.
- G** Telefonoa berotu egiten da.
- E** Dei luzeetan edo jokoak/Internet luzaro erabiltzen denean, baliteke telefonoa berotzea. Oso normala da eta ez dio batere eragiten produktuaren bizitza erabilgarriari ez eta errendimenduari ere.
- G** Bateriaren erabilera-denbora laburragoa da.
- E** Bateriaren iraupena laburregia bada, hauek zerikusia izan dezakete: erabiltzailearen ingurunea, dei-bolumen handia edo seinaleak laburregiak izatea.



- G** Aurkibideko sarrera bat hautatzean, ez da zenbakirik markatzen.
- E** Egiaztatu zenbakiak ondo gorde dituzula aurkibidearen bilaketa-funtzioaren bidez. Beharrezko izanez gero, gorde berriro.
- G** Ezin dute zurekin kontaktatu.
- E** Telefonoa piztuta duzu ( sakatu duzu hiru segundoz baino gehiagoz)? Sare zelular zuzenera sartzen zara? Sarrerako deiak murrizteko aukera ezarri duzu?
- G** Ez dut blokeatzeko kodea, PINa edo PUKa edo pasahitza aurkitzen.
- E** Lehenespen gisa, desblokeatzeko kodea "b40000"b4 da. Kodea galdu edo ahaztu egin baduzu, jarri harremanetan telefono-hornitzailearekin. PIN edo PUK kodea ahaztu edo galtzen baduzu, edo ez badituzu jaso, jarri harremanetan sare-zerbitzuen hornitzailearekin.

Osagarriak

Zure telefono mugikorrerako osagarri ugari dago. Galdetu erabiltzeko modua hornitzaileri.

Bateria

Bateria estandarra du.



Entzungailuak

Telefonora konektatzen duzunean, telefonoa eskuekin hartu gabe hitz egin dezakezu.



Kargagailua

Zure mugikorreko bateria kargatzeko erabil dezakezu.



Oharra • Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.

- Osagarriak desberdinak izan daitezke eskualdeen arabera. Mesedez, galdetu zure konpainiari edo tokiko agenteari informazio gehiago behar izanez gero.

Orokorra

Produktuaren izena: KG220

Sistema: GSM 900/ DCS 1800/PCS 1900

Giro-tenperaturak

Max.: +55 °C

Min.: -10 °C

Adostasun-deklarazioa



Hornitzaileari buruzko xehetasunak

Izena

LIS Electronics Inc.
Helbidea
LG Electronics Inc. LG Twin Towers 20,
Yeouido-dong, Ycongdongpo-gu Seul, Korea 150-721

Produktuari buruzko xehetasunak

Produktuaren izena

GSM 900 / DCS 1800 banda dualeko telefonoa

Modeloaren izena

KG220

Marka

LG

C € 0168

Aplikatu beharreko estandarrei buruzko xehetasunak

R&TTE 1999/5/EE zuzentaraua

EN 301 489-1 V1.5.1, 301 489-7 V1.2.1

EN 60950-1: 2001

EN 50360: 2001, EN 50360: 2001

3GPP TS 51.010-1.

e GCF-CC 3.18.Oren araberako hautaketa, EN 301 511 V.9.0.2ren baldintzak barne.

Informazio gehiago

Adierazpena

Honen bidez, lehen aipatu den eta adierazpen honi dagokion produktuak aipatutako zuzentarauak eta estandarrak betetzen dituela ziurtatzen dut.

LG Electronics Inc. Amsterdamgo bulegoa
Veluwezoom 15, 1327 AW Almere,
Herbehereak

tel.: +31 - 36547 - 8 940,

Helbide elektronikoa:

seokim@ige.com

Izena

Jin Seong, Klm Director

Emisio-data

2005eko apirilaren 7a

Ordez kariaren sinadura



BERME-TXARTELA

- 1.- Gorde txartel hau –behar bezala beteta eta saltokiaren zigiluarekin– eta erosketaren ordainagiria bermealdi osoan.
- 2.- Konponketa-zerbitzuak behar badituzu, berme-txartel hau erakutsi behar duzu.
- 3.- Gure produktuei edo konpainiari buruzko informazioa behar baduzu edo zalantzaren bat argitu edo kontsultaren bat egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan gure web orrien bidez edo bezeroarentzako arreta-zerbitzuko zenbakien bidez.
- 4.- Irakurri arreta handiz berme-txartel honen edukia.

LG-REN HARREMANETARAKO DIREKTORIOA

902.500.234

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren telefono-zenbakia da hori.
Deitu telefono horretara kontsultak eta erreklamazioak egiteko edo laguntza teknikoa eskatzeko.

<http://es.lgservice.com>

Web orri horren bidez, eskuliburuak eta SWren eguneratzeak deskarga ditzakezu,
eta kontsulta elektronikoak egin ditzakezu posta elektronikoz.

www.lge.es

Gure web orri korporatiboa da hori. Gure konpainiari buruzko informazioa aurkituko duzu hor.

LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN BULEGO NAGUSIAK

Europa Empresarial gunea, Madrid eraikina.
VI. errepide nazionala, 24. km. Las Rozas
MADRIL

tel.: (34-91) 211.22.22 FaxA: (34-91)
211.22.46

LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.-REN ZERBITZU TEKNIKOEN ZENTRALA

El Oliveral industrialdea, 13. sektorea, 27.
partzela. A Ribarroja del Turia 46190
VALENTZIA

tel.: (34-902) 500.234 Faxes: (34-96) 305.05.01

BERME-ZIURTAGIRIA

(Telefonia)

BERMEAREN BALIO-BALDINTZAK

1. Bermeaz baliatzeko, Berme-ziurtagiria NAHITAEZ aurkeztu behar da.
 - 1.1. Saldu aurretiko tartean (saltokia), gailuaren modeloa eta dagokion serie-zenbakia ipini behar da bermean.
 - 1.2. Bermea indarrean dagoen tartean (erabiltzailea), erosketaren ordainagiria aurkeztu behar da NAHITAEZ.
2. LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.A.k Laguntza Teknikoko Sarean ezarri dituen zerbitzu teknikoak erabiltzen badira bakarrik izango dute balioa bermearen onurek.
3. Gailua eskuliburuan zehazten diren jarraibideen arabera erabili behar da.

BERMEAREN ESTALDURA

- Bermea LG markako telefono mugikorren modeloei aplikatzen zaie.
- Hau da bermealdia:
 - Terminala: 24 hilabete
 - Bateria: 6 hilabete
 - Oinarrizko osagarriak: 24 hilabete
 - Aukerako osagarriak: 24 hilabete
- Bermea ez da luzatuko bermealdi horretan egindako konponketen ondorioz piezak aldatzeagatik.

BERMEAREN SALBUESPENAK

- Aurreko puntuko baldintzak ez betetzea.
- Berme-ziurtagiri honetan zehaztu edo sartu ez diren gailuaren barneko zein kanpoko osagai edo osagarri guztiak.
- Martxan jartzea eta funtzionamendu-erakustaldiak erabiltzailearentzat, sistemen konfigurazioa.
- Matxura suteen, uholdeen, gehiegizko hezetasunaren, eragile meteorologikoen, kolpeen edo zanpatzeen ondorioz gertatzen bada, edo tentsio edo energia desegokia aplikatzen bazaio.
- Gaizki erabiltzeagatiko kalteak, garraioan izandako kalteak barne –Garraio Konpainiaren langileei erreklamatu behar zaie–; beraz, emate-agiriak berretsi baino lehen paketeak ikuskatzea komeni da.
- Haustura fisikoen ondorioz gertatutako matxurak –karkasak, plastikoak, pinturak, esmalteak, kristalak, edergarriak eta antzekoak–.
- Gailuekin batera datozen funtzionamendu- eta erabilpen-jarraibideei kasurik ez egiteagatik gaizki erabiltako produktuak. • Gailuan osagarri desegokiak erabiltzeagatik.
- Fabrika-zenbakiarekin identifikatuta ez dauden gailuak edo zenbakia aldatuta edo ezabatuta duten gailuak.
- Gailuaren serie-zenbakia berme-ziurtagirian azaltzen den zenbakiarekin bat ez badator.
- Gailua (softwarea nahiz hardwarea) LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.A.k baimendu gabeko langileek konpontzen edo manipulatzan badute.
- Gailu bakoitzari dagozkion mantentze-lanak, maiztasuna edozein delarik ere.
- Berme-ziurtagiri honetan sartzen eta zehazten ez den gailuaren barneko edo kanpoko osagai edo osagarri batek eragindako matxura.

OHAR GARRANTZITSUA

- Konponketak iraun bitartean, ez da kalte-ordainik ordainduko gailua zerbitzutik kanpo egongo den denborarengatik.
- LG ELECTRONICS ESPAÑA S.A.k ez ditu bere gain hartzen gailu batek kanpo-elementuetan eragin ditzakeen kalteak.
- LG ELECTRONICS ESPAÑA, S.A.ren bermeak estatu espainiar osorako jatorrizko inprimakia ordeztzen du.

ERABILTZAILEAREN ETA PRODUKTUAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

POSTA-KODEA:

HERRIA:

PROBINTZIA:

TELEFONOA:

EROSKETA-DATA:

MODELOA:

SERIE-ZK.:

ESTABLEZIMENDUAREN ZIGILUA:

ESTABLEZIMENDUAK EDO DENDAK DATU GUZTIAK BETE
BEHAR DITU SALEROSKETAREN UNEAN



mœvil

